

Kultura

Durango kaleak eta aretoak argazkigintzaren erakusleho bihurtuko ditu Begira Photo jaialdiak > 11

UDAKO
GEHIGARRIA



28 merkatarik 23:00ak arte zabalduko dute gaur, Durangon, promozio bereziak eskaintzeko

II. Gau Irekia ekimena antolatu du gaur gauerako Dendak Baik. Musika emanaldiak eta Sh'Bam eskola antolatuko ditu elkarteak


Gauz ere erosketak egiteko aukera eskainiko dute gaur Durango 28 merkatarik, Gau Irekia ekimenaren bigarren edizioan. Dendak Bai elkarteak antolatutako ekimenean parte hartzen duten komertzioek promozio bereziak eskainiko dituzte. Gainera,

kulturari garrantzia eman guran, erakuslehoetan musika eta artelanak sortuko dituzte hainbat artistek. Alde Zaharrean musika eta mago baten ikuskizuna eskainiko dute. Ezkurdin, berriz, Sh'Bam eskola eskainiko dute. > 3



Durangoko Azoka estu eta larri

Durangoko Azokako ordezkariak laguntza handiagoa eskatu diote Eusko Jaurlaritzari > 2



Durangaldea > 8

Auzitegi Nazionalak Ibai Esteibarlanda eta Eñaut Aiartzaguena absolbitu ditu

Elorrio > 4

Segun Lazkano omenduko dute bere lagunek ekainaren 21ean

Zornotza > 9

Institutuak esker ona adierazi dio Alcoari, emandako laguntzagatik

Lurreta > 6

Gurutze Gorria saritu du lurretako institutuak diploma banaketan

Herririk herri

Durangoko Azokak laguntza handiagoa eskatu dio Jaurlaritzari

Azokako kideen ustez, egungo laguntzekin "egoera jasangaitza" izango da



Durangoko Azokaren koordinazio guneko ordetzariak, astelehenean, Legebiltzarrean.

**Oihane Agirre**
Goiena, Azoka Telebista

Marra gorriraino heldu da Durangoko Azoka. Hainbat guneren biziraupena zalantzan dago gaur egun; iaz ere gerrikoa estututa lan egin genuen. Hobekuntzarako aurrekonturik ez daukagu, eta horrela nekez egin dezakegu lan.

Arrate Illaro
Topagunea, Kabia

Durangoko Azoka babestea ez da urtean lau eguneko ekimen bat sustatzea; euskal kulturari urte osorako bultzada ematea da. Ehunka sortzaile eta 100.000 herritar biltzen dituen azokak eragin handia du, eta neurriko laguntza merezi du erakundearen aldetik.

**Oihane Barrutia**
Barbaro, Saguanbarra

Urtetan egin dugun ibilbideak eta azken urteotan egin diren apustu sendoek neurriko inplikazioa behar dute. Durangoko Azokak duen eragina nabarmena da, bai arlo sozialean, bai arlo kulturean, bai arlo ekonomikoan.

DURANGO J.G / M.O.

"Iaz lez, estu eta larri gabiltza". Durangoko Azokaren antolatzailerak Eusko Legebiltzarrean egon ziren astelehenean, proiektuaren egoera ekonomikoaz berba egiteko. Kezka agertu zuten, eta diru-laguntza handitzea eta egonkortzea eskatu ere bai. Alderdien partetik erantzun ona jaso zuten, baina erabaki irmorik ez oraingoz.

Nerea Mujika Gerediagako presidentea eta Aitziber Atrrasagasti gerenteak egin zuten berba Kultura Batzordean. Atrrasagastik azaldu zuenez, iaz 56.000 euroko defizita eduki zuten. Gainera, oraindik ez ei dakite aurtengo finantzazio publiko osoa zenbatekoa izango den, eta "lehenbailehen" jakin behar dutela ohartarazi zuen. "Aurreko urteetako ildotik badatoz laguntzak, jasangaitza izango da egoera, larrialdikoa". Iaz %43koa izan zen laguntza publikoa.

Azokaren izaera estrategikoa defendatu zuen Mujikak: "Azokak Euskal Herri osoaren

babesa dauka, eta euskal kulturaren egituratzean estrategikoa da". Urtero 100.000 bisitari jasotzen dituela gogoratu, eta horrek eragin kulturalaz gainera ekonomikoa ere badakarrela esan zuen. "Azoka bermatzeko, eta lana baldintza duinetan egiteko, bitartekoak jarri behar dituzte erakundeek. Finantzazio handiagoa behar dugu". Urtero 150.000 euro ematea eskatu zuten; Eusko Jaurlaritzak 80.000 euroko laguntza dauka aurreikusita aurtengo edizioarako.

Alderdien erantzuna

EAJko Pello Iparragirrek azaldu zuen ulertzen dutela euren kezka. "Eskaera jaso dugu, eta aztertuko dugu zer egin daitekeen etorkizuna bermatzeko".

150.000 euro
Eusko Jaurlaritzari

Durangoko Azokak diru kopuru hori urtero ematea eskatu du

EH Bilduko Estitxu Breñasek esan zuen bat egiten dutela Durangoko Azokaren proiektuagaz, eta begi onez ikusten ditu azken urteetan emandako pausoak. Batez ere Durangaldeari dakarkion onura nabarmendu du Breñasek. 150.000 euroak ematearen alde agertu zen, eta Jaurlaritzaren egungo eredia kritikatu zuen, Durangoko Azokari 80.000 euro ematen dizkion bitartean Guggenheimi 3,5 milioi euro ematen dizkiolako.

PSE-EEko Vicente Reyesek esan zuen Durangoko Azoka garrantzitsua dela, eta PPko Carmelo Barrio dirua ematearen alde agertu zen: "Sentsibilizatuta gaude, eta pausoak eman behar direla uste dut".

Mujikak akordiora ailegatzeko gonbidapena egin zien alderdiei. "XXI. mendeko azoka osatu, kalitatezko eta moderno bat nahi dugu".

Oier Andueza preso jipoitu dute Murtziako kartzelan

DURANGO M.O.

Oier Andueza preso durangarra jipoitu dutela salatu du Etxerat elkarteak. Etxerategen dioenez, martitzenean gertatu zen eraso. Kartzelako kiroldegian liskarra izan zuen funtzionario bategaz, eta Anduezak plaka zenbakia emateko eskatu zion. Funtzionarioak ukatu egin ei zion, eta, gainera, biluzteko agindu ere bai. Ostean, bata eskatu zion presoak, eta hori ere ukatu egin ziola esan dute. Eztabaidak jarraitu, eta orduan etorri zen eraso: "Lau funtzionarioiek preso durangarrari erasotu, eskuburdinak jarri, eta isolamendura eraman zuten preso", azaldu du Etxerategen. Gaur manifestaziora deitu dute 20:00etarako, Andra Marin hasita.

20 urte bete ditu San Antonio-Santa Ritako haurtzaindegiak

DURANGO M.O.

San Antonio-Santa Rita ikastetxe haurtzaindegiak 20 urte bete ditu aurtun. Durangaldean zabaldu zen lehenengo haurtzaindegia izan zela gogoratu dute arduradunek, eta urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste honetarako. Gaur amaituko dute egitaraua, eskolako jaiagaz.

Aste osoan argazki erakusketan egon da ikusgai ikastetxean, eta zenbait berbaldi ere antolatu dituzte, arreta goiztiarraren eta estimulazioaren inguruan, adibidez. Gainera, umeentzako tailerrak prestatu dituzte, eta ikasle ohien bisitak ere jaso zituzten atzo bertan.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko ekainaren 13a,
12. urtea - 549. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

Herritarren Arreta Zerbitzua udaletxera eroango dute

DURANGO M.O.

PSE-EEk iragarri duenez, Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) Andra Maritik udaletxera eroango dute aurten. Alokairuko gastua aurrezteko da erabakiaren helburua. Pilar Ríos bozeroaleak eman du horren berri prentsa ohar bidez: "Ikusi dugu dirua xahutzen zela, udalak lokalak erabilgarri dauzkan bitartean". Ríosen arabera, gaur egun, 3.600 eurokoa da Andra Marin dagoen bulegoaren alokairua.

Udalak Barrenkalen dauzkan bulegoetan egongo da hemendik aurrera HAZ. Ríosen hitzetan, irailerako prest egon beharko du leku berriak. Alokairuagaz aurreztuko dena inbertsio teknologikoak, gestioa eta gardentasuna hobetzeko erabiliko dela esan du zinegotzi sozialistak.

Bestalde, Ríosek nabarmendu du aurten ere martxan ipiniko dela e-administrazioa. Horri esker, tramiteak Internet bidez egin ahalko dira, eta herritarrek udaleko aurrekontuak eta soldatak ezagutu ahalko dituzte.

II. Gau Irekia antolatu du Dendak Bai merkatarien elkarteak gaurko

28 denda gaueko 23:00ak arte egongo dira zabalik, eta promozioak egingo dituzte

DURANGO Markel Onaindia

Gauz ere erosketak egiteko aukera egongo da gaur, Durangon, Dendak Bai elkarteak II. Gau Irekia antolatu du eta. 28 merkatarik parte hartuko dute; hogeidendak dira, eta gainerakoak ostalaritzakoak. 23:00ak arte egongo dira zabalik, eta tarte horretan hainbat promozio eta

deskontu egingo dituzte, aurkezpenean Santiago Reyes antolatzailak azaldu zuenez.

Kulturari garrantzia emango diote, gainera. Adibidez, komertzioen erakusleioetan margolanak eta musika sortuko dute zenbait artistek. Alde Zaharrean musika eskainiko dute, eta mago bat ere ibiliko da ka-

lerik kale. Ezkurdin, 20:00etan, dantza eta kirola batuko dituzte Sh'Bam eskola batek.

Eusko Jaurlaritzak eta udalak diruz lagundu dute ekimena. Aitziber Irigoras alkatearen ustez, "merkatariak bizia ematen diote" Durangori.

Errekurtsoa, atzera

Bestalde, epaileek atzera bota dute Dendak Bai elkarteak beste eragile batzuekin Aki saltokiaren zabalpenaren kontra ipinitako errekurtsoa. Udalak lizentzia eman zion brikolaje zentroari, eta Dendak Baikoez lizentzia hori ilegala zela salatu zuten, eraikitzeke espazio muga gaindituta zegoelakoan. Epaileek diote Durangoko zatikako planean baimentzen dela, baina, merkatarien iritzi, ez dute Arlokako Lurralde Plana kontuan hartu. Akiren lursailen 13.000 m² bete direla adierazi dute, baina, industrialde osoa kontuan hartuta, merkataritzarako 32.400 metro daudela erabilita. Horregatik, Auzitegi Gorenera joko dute.

30 urteko gizon bat atxilotu dute bikotea erasotzea egotzita

DURANGO Jone Guenetxea

Durangoko ertzain etxeko agenteek 30 urteko gizon bat atxilotu zuten martitzen arratsaldean, genero indarkeria delitu bat egitea egotzita. Ertzaintzak azaldu duenez, atxilotuari bikotekidea erasotzea eta mehatxatzea leporatzen diote.

Ertzaintzak prentsa oharrean dioenez, asteartean, arratsaldeko 17:00etan, etxebizitza batetik gazte baten deia jaso zuten, bere ama indarkeria zantzuekin topatu zuela ohartarazteko. Gaineratu dutenez, bertaratu ziren agenteek emakumeak ubeldurak eta kolpeak zituela ikusi zuten. Biktimak polizia adierazi zien bikotekideak galaz egin ziola etxetik ateratzea, eta egun batzuk lehenago jo eta mehatxatu egin zuela. Emakumea erietxera eraman zuten. Biktimaren bikotekidea etxean bertan topatu zuten ertzainek, maleta egiten. 30 urteko akusatua atxilotuta eraman zuten.

Durangoko Txoko eta Bilgune Feministak kontzentrazioa deitu zuten atzo, 20:00etan, Ezkurdin, eraso salatzeke.



Munitxa, Irigoras eta Reyes, ekimenaren aurkezpenean.

Ezpatadantzari Egunean batuko dira eskualdeko dantza taldeak

DURANGO M.O.

Gerediaga Elkarteak antolatzen duen Merinaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute bihar, Durangon. Durangaldeko dantza taldeak batzeko eguna izaten da, 1967tik egiten dena. 60ko hamarkadan dantza horiek galtzeko arriskua ikusi zuten, eta indarra emateko asmoz sortu zuten jaialdia Gerediagak eta zenbait dantza taldek. Iurretan izan zen lehenengo edizio hura, eta urteotan herririk herri antolatu dute. Biharkoan Durangoko Ezkurdira joango da dantzaren plaza.

18:30ean, udaletxean elkartuko dira dantzariak, eta handik kalejiran joango dira Ezkurdira. 19:00etan hasiko dira saioa: dantzari dantza eta erregelak egingo dituzte. Ostean, 21:30ean, Merkatu plazan afalduko dute. Ansorregi taldearen erromeriagaz amaituko da jaialdia.

18:30ean, udaletxean elkartuko dira dantzariak, eta handik kalejiran joango dira Ezkurdira

Ekoden hortz klinika

> PUBLIRREPORTAJEA

Gaur egun, hortz inplanteen tratamendua oso ohikoa da klinika gehienetan, baina kirurgia horren planifikazioa oso garrantzitsua da; izan ere, kasurik gehienetan, pazienteak hezur galera nabarmenarekin hurbiltzen da klinikara, eta horrek oztopatu egiten du hortz inplanteak jartzea.

Klinikek erradiologia tresna bat izan ohi dute, pazienteak zenbat hezur duen jakiteko, baina irudi horiek bi dimentsiotan izaten dira, eta, orain arte, zirujaua hezurra heltzen zenean, ezustekoak aurkitzen zituen, horrelako irudi batek ez duelako benetako egoeraren berri ematen. Alabaina, gure klinikan ezarri dugun hortz eskanerrari esker, irudiak hiru dimentsiotan ikusten ditugu, 0,1 milimetroko ebakiekin; horrela, ebakuntza egin baino lehen, pazienteak zer-nolako hezurra duen ikusten du zirujauak, eta operazioa modu egokian planifikatu du.


Era berean, beste arazo bat ere bazegoen lehen. Klinikek erradiologoaren esku uzten zituzten hortz eskanerrak, eta

pazientea bera joan behar izaten zen erradiologoarengana, zenbateko altu bat ordaindu behar izateaz gainera. Gure klinikan, berriz, momentuan bertan egiten ditugu eskanerrak, eta 80 euro balio du hotz-arku bien eskanerrak. Horretaz gainera, gama altuko hortz inplanteak bakarrik erabiltzen ditugu, Phibo markakoak, adibidez; horrela, bermeari dagokionez, ustekabe desatseginak sahisten ditugu.

Halaber, inplanteak egiten dituen inguruko aditurik onenetakoa dugu gurekin, Andoni Peñaranda doktorea. Esperientzia handia du, eta inplante kirurgiaren arloko tratamenduetan erabateko bermea eskaintzen du. Eta, hori gutxi balitz, prezio lehiakorak izateaz gainera, %15erainoko beharpenak eskaintzen ditugu -beti ere, amaierako aurrekontuaren arabera-, eta zure tratamendua finantzatzeko inolako interesik gabe.

Durangoko Arkotxa kalean gaude, 4. zenbakiko behealdean, eta 946 217 822 da gure telefono zenbakia.

HORTZ ESKANER OSOA 80€



Segun Lazkano gogoratu eta omenduko dute bere lagunak

Segun Lazkanoren lagunak ekitaldia prestatu dute ekainaren 21erako



Segun Lazkano, plazan ateratako argazki batean.

ELORRIO Markel Onaindia Iazko azaroaren 18an hil zen Segun Lazkano elorriarra, 54 urte-gaz. Irakaslea zen ofizioz, baina argazkilaritza eta euskaltzaletasuna ere odolean zeroiazan. Barriketan euskara elkarteko kide, *Eraz* astekariaren sortzaile, ANBOTOKo argazkilaria... Sektore sozial eta kultural ugaritan mugitu zen, eta, ondorioz, jende

askoren lagun egin zen. Maite zuten lagun horiek ez dute ahaztu gura, eta bera gogoratu eta omentzeko ekitaldi bat prestatu dute ekainaren 21erako.

Zenbait lagunak batzorde bat osatu dute ekitaldia antolatzeko, eta horietako bat da Joseba Eguren, Lazkanoren aspaldiko laguna. Ekimenagaz gura dutena zer den azaldu du: "Lagunak elkar-

tu, Segun gogoratu, eta arratsalde polit bat pasatu". Argiñetan

Irakaslea zen ofizioz, baina argazkilaritza eta euskaltzaletasuna ere odolean zeroiazan

izango da ekitaldia, 18:00etatik aurrera. Irudiak, musika eta irakurketak egingo dituzte. Adibidez, argazkilaria batzuk ikus-entzunezko bat lantzen dabilta. Beste lagun batzuek, ostera, abestu egingo dute, eta Urko y los primos de riesgo taldeak ere joko du. Egurenak esan du mikroa zabalik egongo dela Lazkano gogoratu gura duen edonork parte hartzeko.

Argazki kameragaz gertarak eta bizipenak gordetzea zen Lazkanoren pasioa. Hori gurako dute hurrengo zapatuan, Argiñetan, batzen direnek: euren laguna, Segun Lazkano, betirako euren memorieta gorde.

Ume dantzarien Euskal Jaia ospatuko dute domekan

ELORRIO M.O.

Ume dantzariak Elorrio beteko dute domekan, urtero antolatzen den Euskal Jaia ospatzeko. Elorrioko eta inguruko herrietatik etorritako 230 bat umek parte hartuko dute ekitaldian, Besaide dantza taldeko kideek azaldu dutenez.

Goizeko 11:00etan batuko dira dantzariak, plazan, eta 12:00etan kalejirak egingo dituzte taldeka, bakoitzak bere aldetik. 13:30ean bazkaltzeko ordua helduko zaie, eta, ohiturari eutsita, elorriarrek euren etxetara gonbidatuko dituzte kanpotik datozen umeak. Besaidekoek esan dute jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko esperientzia ona dela umeentzat.

Arratsaldean, alardea

Bazkalostean, 16:30 bueltan, plazan batuko dira berriro. Arratsaldeko 17:00etan izango da eguneko hitzordu esanguratsuenetakoa: alarde nagusia. Euskal Jaian parte hartuko duten ume guztiek batera egingo dute dantzan.

Txintxirri ikastolarako bidea konpontzen hasi dira

ELORRIO M.O.

Eskola bidea deitzen den egitasmoaren barruan, Txintxirri ikastolarako bidea konpontzen hasi dira. Beste ikastetxe batzuen antzera, proiektu horretan murgildu dira udala eta Txintxirri, eta lehenengo fasea da garatzen hasi direna. Eskoletako sarbideetan segurtasun handiagoa sortzea izan ohi da helburua, eta obragaz oinezkoiei eta bizikletariei lehenetasuna ematen diete. Lan horiekin, San Jose kalean espaloia zabalduko dute.

Udalak finantzatuta, lau metroko zabalerako espaloia egingo du San Jose kalean, eta horretarako behar den espazioa utzi dio ikastolak. Gainera, horma eraberrituko dute. Kendu egin dute orain arte zegoena, eta horri harriak erabilia, hareharrizko horma berria eraikiko dute. Ikastolara sartzeko ate berria ere egingo dutela azaldu dute, "segurtasun maila handiagoa bermatzeko".

Bestalde, herri eskolan amaitu dituzte lanak; bidea konpontu, eta ate berria egin dute.

Pilotalekuko argiak aldatzeko diru-laguntza jaso dute

GARAI M.O.

Herriko pilotalekuko argiak aldatuko ditu udalak, eta, horretarako, diru-laguntza jaso du. Foku zaharrak kendu eta LED kontsumo baxuko argiak ipiniko ditu. Agenda 21eko diru-laguntzen barruan egin zuten udaletik eskaera, eta dagoeneko jaso dute erantzuna: 20.000 euro eman dizkiete, egitasmoaren kostu osoaren %60.

Aurrekontuetan zehaztu zuten proiektua, eta, pilotalekuko gainera, San Miguel elizako fokua ere aldatuko dituzte.

San Adrian jaiak ospatuko dituzte Gereaa auzoan

Briska jokoa eta asto-probak izango dituzte, besteak beste, datorren asteko egitarauan, Gereaa auzoan

MALLABIA Jone Guenetxea Datorren astelehenean, San Adrian eguna ospatuko dute Gereaa auzoan, jaiak hasiera emanda. Eguerdiko 12:00etan meza izango da. Datorren asteko barrikuan, berriz, ohiturari eutsiz, donien Atxa jasoko dute, arratsaldeko 19:00etan.

Datorren zapatuarekin, ekainaren 21erako, hainbat ekintza aurreikusi dituzte. 16:00etan umeentzako txokolata da prestatuko dute. 17:00etan, aldiz, briska jokoa bilduko dira.

Domekarako egun osoko egitaraua prestatu dute. 11:00etan meza izango da. Ondoren, Iker Garitagoitia eta Jokin Bergara bertsolariak arituko dira kantuan. Gero, Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Jarraian, herri kirolen txanda izango da (harri-jasotzaileak, aizkolariak eta trontzalariak, adibidez). Umeen txokor batzea ere antolatuko dute. Arratsaldean, asto-probetan lehiatuko dira Goizeder, Satzibar, Bitorio eta Zubibari.

Askorra eta Foru kaleak urbanizatzeko proiektua

Euskal Herria kaleko kamioien trafikoa gutxitzeko

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Iazko urte amaieran aurkezturiko proiektuari herritarrek egin dizkioten alegazioak erantzun ostean, Askorra eta Foru kaleak urbanizatzeko egitasmoaren behin betiko onarpena egin dute aste honetako udalbatzarrean. Bilduko sei zinegotziek bozkatu dute proiektuaren alde, abstenitu egin da PSE, eta kontra bozkatu dute EAJk eta PPK.

Jose Andres Urizar Hirigintzako zinegotziak atzoko udalbatzarrean azaldu zuenez, bost enpresak aurkeztu dizkiete

alegazioak proiektuari, eta 1 sei hartu ditu udalak aintzat.

Proiektu honen barruan Askorra eta Foru kaleak urbanizatzeko, eta kamioiak Euskal Herria kaletik ateratzeko neurriak hartuko dituzte 210.000 euroko inbertsioko lanekin. Urizarren berbetan, urte honetako azken hiruhilekoan ekingo diete lanei, eta obrek hilabete eta erdi inguruko iraupena izango dutela aurreikusi dute. Euskal Herria kalea ibilgailu astunez libratzea, eta gune seguruagoa bilakatzea da obraren helburua.

hitz artekaia, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
liburudenda



Ahoztar Zelaia

Aurkezpena EUSKERAZ izango da

Eguna: Ekainak 19, osteguna
Ordua: 19:30
Lekua: Hitz liburu denda

JÓVENES BURUKIDES BIZKAINOS
CLIENTELISMO Y "FONTANERÍA" EN EL PNV



Ahoztar Zelaia


SERRATU, S.L

GALDARAGINTZA ETA ITXIERAK



gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia
Tel.: 946 201 837 - Faxe: 946 818 635 - serratu@serratu.com



tsua den ez makinak bakarrik prestatzea, matematikako zortzi formula dakiten neska-mutilak prestatzea, baizik eta gizartean parte hartzen duten pertsonak prestatzea, eguneroko arazoari aurre egiten dietenak! Ikasle “osoagoak”.

“**Nabarmentzekoa da irakasleen inplikazioa eta ekipamendu modernoak**”

Praktikei dagokienean, curriculumean urtebetez Accenturen lan egin izana agertzeak ate asko ireki diezazkidekeela badakit. Izan ere, han egon diren bekadun guztiek lanpostu onak dituztela, edo lanean daudela esaten didate.

Zer espero duan?

Nire anaiak hemen ikasi zuen, eta arrakasta izan du: ikasketak bukatu, praktikak egin eta bost urte daramatza lanean kontratu mugagabearekin, eta zera pentsatu nuen, nik ere proba egingo dut! Zergatik ez teknikari edo lantalde baten buru legez lan egin...? Pozik hartuko nuke erantzukizunik... Ez dakit, datu zentro batean, zerbitzarietan informatika teknikari lez, sare kontuetan, zerbitzari eta aplikazio muntatzaile legez... horrelako kontuetan, praktikoa eta entrenigarria.

Informatika ikastea erabakitzen baduzu ondo prestatua egon behar duzu beti eta beti ikasten. Tira, aspertu ez zara egingo! Eta hori irakasleengandik ikasi dut, haiek ere beti ikasten baitabiltza, CISCO...

Gainera, orain, zikloa **Lanbide Heziketa Dual** modalitatean egin daiteke. Leire Blanco ikaskideak dioten bezala, ikasleentzat aukera ezin hobea da ikastetxean eta enpresan lehen kontratuarekin ikasi ahal izatea. Horretan dabil bera, beraz, ondo daki!

Informatika: Pasioa eta lana

Jose Luis Sánchez dut izena, eta Sareko informatika-sistemen administrazioa goi-mailako zikloa egin dut Durango-Maristetan. Ikasurte bian egon naiz bertan.

Praktikak gero Accenturen egiteko zortea izan nuen. Zortea bai, kontua da gero **bekadun legez urtebeteko kontratua** egin zidatela. Accenture nazioarteko aholkularitza enpresa bat da, eta proiektu eta bezero ugari ditu munduan. Nik Iberdrolaren proiektuan lan egin nuen, fakturazioan: bai gasaren, bai elektrizitatearen fakturazioan... haiek bai praktikak!

Eta hori gutxi balitz, Zamudioko plantatik Iberdrola dorrera egin ziren instalazioen migrazioetan ere izan nintzen.

Benetan polita proiektua! Eta, gainera, ni han, denaren erdian; sareen, zerbitzarien, klonazioen muntaian... Eta gainera... **Iberdrola dorrera joan! Eta han lan egin!**

Hura izan zen informatikaren alorrean izan nuen lehen lana; egia esan ondo moldatu nintzen, Maristetan ikasitakoarekin arazorik ez.

Maristetan bizi izandako urteez zer?

Ba, egia esan, **denen inplikazioarekin, hurbiltasunarekin... Baina, nire ustez, garrantzitsuena da nola animatzen gaituzten eta nola laguntzen diguten gure gaitasun eta aukeretan sinesten.** Gutaz arduratzen dira, aurrera egin dezagun. Han ez da “arra-

“**Praktikak Accenture-n, eta gero urtebeteko kontratua**”

tsaldeko hirurak dira eta bihar arte”, ez. Beti e-mailak bidali edo jaso, eta erantzuteko prest; irakasleekin izandako harremana oso positiboa izan da.

Gainera, esan beharra dago Maristetan tresna onak daudela, ikasgela onak, irakasle onak, ikasle bakoitzarentzat ekipo bana, ikasgelak ondo antolatuta daude... Are gehiago, **ikastetxeko ekipoak enpresan izan ditudanak baino modernoagoak dira!** Lankide-

batzuek ez zituzten ez Linux, ez komandoak ezagutzen... eta nik ikastetxean Linux eta Debian zerbitzariarekin lan egin izan dut, oso prestakuntza ona izan dut.

Zer hobetuko zenuke ikastetxean?

Hobekuntza... orain arteko lan ona egiten jarraitzea izango litzateke. Hori asko da, askotan gauzak ondo egiten direnean konfiantza hartzen delako, eta gero beherantz egiten da, baina Maristetan, ostera, etengabeko hobekuntzaren bila dabilta. Hori lan zaila da, ez da batere erraza, baina **urtero pasatzen dituzte ikuskapenak 2006an lortu zuten Urrezko Q-aren maila mantentzeko.**

Zer nabarmenduko zenuke?

“Zuen eskura”. Hori niretzat itzel aberasgarria izan zen ekimen sozialdun egitasmo bat izan zen. Zein garrantzi-

Batxilergoak eta Zikloak

maristak
Ikastetxea - Durango

Biharko Beharretarako

Abasolo 6 Durango, 48200 Bizkaia.
Tel. 94 681 00 58, Fax. 94 620 06 38
www.maristak.com | san-jose@maristak.com

**Zalantzarik?
Galde
lezaguzu!
946810058
www.maristak.com**

**Matrikulak
Zikloak
Uztailak
9tik 16ra
Batxilergoa
Ekainak 23tik
Uztailak 4ra**



Lanbide Heziketa Duala!

Bizkaiko Gurutze Gorriari saria eman dio Iurretako institutuak

Ikasleak praktiketan hartzeko elkarlana eskertu dute

IURRETA Amaia Ugalde Heldu da ikasturte amaiera Iurretako institutuan, eta praktikak amaitu dituzten ikasleei diplomak emateagaz batera, Iu-

rretako Institutua saria banatu dute. Bizkaiko Gurutze Gorriko Maitane Boulandierrek jaso du saria. Gainera, Iurretako Institutuko Laguna saria Verónica



Diestro, Totorikaguena, Boulandier eta Tomas Maguregi institutuko zuzendaria.

Diestrori eman diote, aipamen berezia eginda. Diestro Gurutze Gorriak gizarte bazterkeriaren kontra daukan *Ahora más que nunca* programaren koordinatzailea da, eta baita Gurutze Gorriko praktiken tutorea ere.

2006-2007 ikasturteetik dabilza lankidetzan Iurretako institutua eta Gurutze Gorria. Administrazio Kudeaketa heziketa zikloko ikasleek egiten dituzte praktikak erakundearen.

Verónica Diestrok saria emozioz jaso du: "Gurutze Gorriaren leloa *Geroago eta gertuago* da, eta ahalegintzen naiz hori praktikan ipintzen. Ikasleekin izan dudana esperientzia oso aberatsa da, eta asko ikasten dut eurekin".

Diploma banaketa

Aurten 108 ikasle amaitu dute ikasturtea Iurretako institutuan. Praktikak inguruko hainbat enpresatan eta atzerrian egin dituzte. Polonia, Alemania, Italia eta Austriako enpresetara joan dira ikasle batzuk.

Dendetan eta tabernetan, elkarrizketen %44 euskaraz

IURRETA A.U.

Iurretan hamarretik sei tabernari eta dendari dira gai euskaraz berba egiteko, baina dendetan eta tabernetan elkarrizketen %44 bakarrik dira euskaraz. Elhuyar aholkularitzak herriko merkataritzan eta ostalaritzan egindako diagnostikoaren emaitzak dira. Komertzioen idatziz-

ko erabilera baxuagoa da; %29 dago euskaraz edo hizkuntza bietan. Datuak ikusita, udalak *Euskaraz betibizi* egitasmoa hasi du. Euskararen erabilerrari lotutako kalitate ziurtagiriak banatuko ditu, euskararen aldeko konpromisoa saritzeko, eta doako aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskainiko du.

Martxan ipini dute enpresa proiektuen lehiaketa

IURRETA A.U.

Herrigunean enpresa berrien sorrera sustatzeko helburuagaz VI. Enpresa Proiektuen Lehiaketa abiatu du Iurretako Udalak. Enpresa ideietan egokiena

iruditzen zaionari 6.000 euroko saria emango dio udalak, enpresa jarduera Iurretan garatzen hasteko.

Lehiaketan baloratzen dituzten alderdien artean daude sustatzaileak Iurretan erroldatuak egotea, proiektuaren bideragarritasuna eta Iurretari etorkizuneari egingo lioken ekarpena.

Egitasmoak aurkezteko epea hasi da, eta urriaren 31n amaituko da.

Hilaren 21ean jarraituko dute auzolanekin

40 bat lagunek egin zituzten auzolanak zapatuan

MAÑARIA Markel Onaindia Mañariko Udalak urtero antolatzen dituen auzolanetan jende ugari batu ohi da, eta aurtengoitian ere horrela izan da. Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo ekinaldia 40 bat lagunek. "Egun horretako balorazioa oso ona da", adierazi du Endika Jaio alkateak. Edozelan ere, ezin izan zuten aurreikusitako lan guztia egin, eta, horregatik, hurrengo zapatuan, ekainaren 21ean, jarraituko dute auzolanekin.

Izan ere, zapaturako parte-hartzaile guztiekin bazkaria egitea pentsatuta zeukaten, eta zita hori aprobetxatuko dute aurretik lan apur bat egiteko. Goizeko 08:00etan batuko dira, plazan, eta geratzen diren auzoetan beharra egingo dute. Hori nabarmendu du alkateak: "Falta diren auzoetan auzolanak

egiteko deialdia zabaldu nahi dugu".

Auzoen arteko jokoak

Auzolanen ostean, poteoa egingo dute, eta, gero, batera bazkalduko dute. Bertara, auzolanetakoek gainera, udalari boluntario gisa laguntzen dioten guztiak

Auzolanetakoek gainera, udalari boluntario gisa laguntzen dioten guztiak gonbidatuko dituzte

gonbidatuko dituzte. Arratsaldean, 17:00 aldera, jai giroagaz jarraitzeko ekimen bat asmatu dute; auzoen arteko jokoak egingo dituzte.

Ekainaren 20a arte luzatu dute jaietako kartel lehiaketa

IZURTZA Joseba Derteano Izurtzako jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren epea gaur amaitzen zen, baina udalak beste astebez luzatzea erabaki du. Horrela, ekainaren 20ko 13:00ak arte aurkeztu daitezke lanak udaletxean.

Kartelak mezu hau izan behar du nahi eta nahi ez: *Izurtzako jaiak 2014*. Jaietako ezagarriren bat ere islatu behar du. Bestelako eskakizunei dagokionez, kartela lantzeko teknika librea da, eta udaletxean entregatzerako orduan lanek euskarri zurrun baten bidez babestuta eta behar den moduan jasota egon behar dute, zikindu edo hondatu ez daitezkeen.

Kartel lehiaketan parte hartu gura duenak udalaren webgunean eskuratu ditzake oinarri denak: www.izurtza.net.

San Antonio eguneko ospakizunak Urkiolan, gaur

Nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu dituzte

ABADIÑO

Itsaso Esteban Ehun abelburu baino gehiago bildu dituen abere azoka egin dute gaur, San Antonio egunez, Urkiolako santutegian: Abadiñoako abeltzainek eramandako 50etik gora behi eta 70 zaldi inguru bildu dituzte. Abadiñoako Udalak antolaturiko nekazaritza azokaz gainera, Urkiolako santutegiko batzordeak antolaturiko baserriko salgaien azoka ere izan da bisitariarentzat prestatu- riko 50 saltoki ingurugaz.

Mario Izeta Bilboko gotzainak eskaini du gaur meza nagusia, Urkiolako santutegian

Ohiturari jarraituta, bost meza hartu ditu santutegiak gaur: 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan. Mario Izeta Bilboko gotzainak eskaini du meza nagusia. Elizkuzun horren ostean, Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze aritu dira Urkiolan bertsoetan, eta, gero, Sirimiri Band taldearen dantzaldia izan da elizaren aurreko plazan.

Domekan, ekainaren 15ean, ohiturazko Errepetiziño Eguna ospatuko dute Urkiolako santutegian. Gaur egin duten bezala domekan ere bost meza eskainiko dituzte. Bilboko gotzain emeritua izango da ekainaren 15eko meza nagusian buru, eta Leioako abesbatza jardungo da, bertan, kantuan. Ondoren, herri kirolen erakustaldia izango da, Urkiolan, ikusgai.

berria

berritzen ari gara guztion ekarpenarekin eta zure laguntza saritu nahi dugu.

Parte hartu zozketan

Sariak:

Kariberako bidaiari laguntzat 2014an eta behekoan zuzenazko sarririk gabe

Arzak jatetxean 3 otordu bi laguntzat

OPARI TXARTELA

100€

50 txartel

Parte hartzeko, bidali:

- Zozketa + izen-abizenak Telegram, Whatsapp edo SMS bidez
- (0034) 687-48 97 84
- Eman izena webgunean: www.berria.info/zozketa

Zozketa ekainaren 20an egingo da, eta saridunak 21ean argitaratuko dira BERRIAN.

Babesleak



Motorretan motorra.

➤ **EcoBoost motorra**

Hiru zilindroko injekzio zuzeneko gasolina motorra, distribuzio aldakorra, turbokonpresorea eta 4,8 litro bakarrik kontsumitzen ditu 100 kilometroko. Gauza bat baino ez zaizu faltako: zure lagunen begirada inbidiatsua jasaten jakitea. EcoBoost motorra. Diesel baten ezaugarriak onenak gasolina baten prezioan.

FORD FOCUS
12.990€



Oztoporik gabe, mugarik gabe.

➤ **Sarbide errazeko atekak**

Azkarra eta berritzailea; horrelakoa da Ford B-Max berria, historiako lehenengo OpenCar-a. 1,5 metroko eta oztoporik gabeko aldameneko sarbidea duen teknologia adimendun auto bakarra. Ford.es

FORD B-MAX
11.990€



Bere teknologia zure eskura eguneko 24 orduetan.

➤ **SYNca AppLink-agaz**

Ford Fiesta berriaren teknologia ez du amaierarik. Orain, AppLink teknologia duen SYNca-rekin zure smartphone-aren aplikazioak kontrolatu ditzakezu, ahots bidezko komando errazekin. 24 orduz konektatuta egoteko teknologia.

FORD FIESTA
8.590€

www.fordkondia.com



ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 946 815 569

Ibai Esteibarlanda eta Eñaut Aiarzagüena absolbitu egin dituzte

Auzitegi Nazionalako epaileek 'Segi auziko' 40 gazteak absolbitu dituzte

DURANGALDEA M. Onaindia "Egun goibel eta ilunak, irriz alai ditzakegunak". Eñaut Aiarzagüenak mezu hori idatzi zuen eguazten goizean, Twitter sare sozialean, 26/11 sumarioko edo *Segi auziko* sententzia jakin au-

rretik. Eta egunak irri egin zion, bai. Auzitegi Nazionalako epaileek auziko 40 gazteak absolbitu dituzte; tartean Aiarzagüena iurretarra eta Ibai Esteibarlanda elorriarra. 2009ko azaroan atxilotu zituzten Segiko kide

izatea egotzita, eta iazko urrian hasi zen epaiketa. Zenbait hila-beteren ostean, epaiaren zain zeuden. Sei urteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak.

Epaileek esan dute ez dela frogatu Segiko kide zirenik -2007an erakunde terrorista izendatu zuten-. Akusazioaren arabera, Segiren agindupean gazte mugimenduan jarduten zuten, eta horretarako Gazte Independentistak taldea erabiltzen zuten. Auzipetuek atxilotu aldian egindako autoinkulpazioak ziren akusazioaren arma nagusiak. Baina epaileek ez diote baliorik eman horri; bai ostera epaiketan esandakoari. "Deklaratzen duena atxilotuta eta inkomunikatuta dagoenean, ezin dira prozesuaren bermeak gauzatu", dio, besteak beste, sententziak. Gainera, Gazte Independentistak taldeak ez zuela indarkeria erabiltzen adierazi dute sententzian.



Esteibarlanda eta Aiarzagüena, epaiketaren aurretik egindako elkarrizketan.

Legañoko jaiak berreskuratu dituzte, eta bertan izango da kultur topaketa

Bakailao txapelketa eta zeramika erakustaldia izango dituzte, besteak beste

BERRIZ Amaia Ugalde Hogeitau baina gehiagoko etnaren ostean, Legaño auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Zapatu-domekarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte, eta herrian egitekoak ziren beste zenbait Legañora aldatu dituzte; kulturarteko jaiak eta zeramika erakustaldia, esaterako.

Itsaso Etxebarriak azaldu duenez, J.R. Korpion bakailao lehiaketa bultzatzeko asmotik hasi ziren jaiak berpizten: "San Pedro jaietatik atera, eta lehiaketa bultzatu gura izan genuen; eta gero egitaraua osatu dugu".

Zapatuan, 20:00etan, igel txapelketagaz hasiko dituzte jaiak. Gauean, Erromeria.com tal-

deagaz izango dute erromeria. Domekan, 12:00etan, dantza ekitaldia eskainiko dute Iremiñek eta San Lorentzok, eta Errioxako San Asensio taldeak. Ondoren, kulturarteko topaketa

egingo dute, urteroko lekutik, eskolatik, auzora lekualdatuta. 14:00etan bakailao lehiaketa hasiko dute, eta 18:00etan Lupetza taldeak antolatutako zeramika erakustaldia izango dute.



Berrizen bizi diren hainbat kulturarteko herritarrek erakustaldia egingo dute.

Salgai daude Iremiñeren urteurren jairako bazkari txartelak

BERRIZ A.U.

Datorren asteburuan 200 dantzari inguru batuko dira Berrizko Iremiñe dantza taldearen 45. urteurrena ospatzeko. Urteotan dantza taldean ibili diren herritarrak batu gura izan dituzte ospakizunean.

Barikuan eta zapatuan ekitaldiak egongo dira, baina domeka izango da egun handiena. Eguerdian, dantzari guztien saioaren ostean, herri bazkaria egingo dute udaletxeko lorategian, eta bazkarirako txartelak salgai daude Fondan, estankotan eta Ama Lur liburu dendan. Umeen txartelak 12 euro balioko du, eta 20 euro, berriz, nagusienak.

Iremiñeko Jose Alberto Narbaizak azaldu duenez, 200 bat dantzari batuko dira jaiak; mutilen hamaika talde, nesken zortzi-bederatzi, eta 30-40 ume. Gainera, barikuan, 19:00etan, dantza taldearen bandera berria aurkeztuko dute Kultur Etxean.

Urdaiagako jaiak asteburuan, giza kateagatik atzeratu eta gero

BERRIZ Joseba Derteano

Joan zen domekan ospatzekoak ziren Berrizko Urdaiaga auzoko jaiak, baina erabakitze esku-bidearen aldeko giza katearen egun berean egokitzen zirenez, astebete atzeratu zituzten. Beraz, domeka honetan ospatuko dituzte jaiak Urdaiagan.

11:00etan meza egongo da ermitan. Mezaren ostean, Berrizko Iremiñe dantza taldeak dantza saioa eskainiko du. Ondoren, Xabier Amurizaren bertsoak entzuteko aukera egongo da. Gaztetxoek ere izango dute dibertitzeko aukera, eurei zuzendutako askotariko jokoak antolatuko dituztelako. Azkenik, auzotarrak bazkari baten bueltan batuko dira.

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP



Enplegua da lehentasuna

Langabeziaren azken datuak Euskadin ez dira baikorrak. Langabeziaren drama da -guztioak dugu gertukoren bat egoera horretan- herritarron lehenengo ardurak eta ardurarik nagusia.

Politikariek, eta batez ere gobernu erantzukizuna dutenek, euren indar guztia eskaini behar diote gai honi.

Susperraldi ekonomikoa eta enplegua dira lehentasuna. 178.073 arrazoi daude enplegua lehentasun bihurtzeko, hain zuzen, Lanbidearen zerrendan dagoen euskaldun kopuru bera.

Rajoyren gobernuak horrela ulertu zuen orain urte bi eta erdi boterera heldu zenean, eta erreforma ekonomikoa sakon bidez -defizita eustea, lan erreforma eta erreforma finantzarioa- Espainia porrotetik eta erreskatetik ateratzea erabaki zuenean. Oraindik ere lan asko egin behar den arren, gaur Espainia norabide baikorra hartzen, eta atzerriko konfiantza berreskuratzen hasi da.

Langabeziari dagokionez, Euskadi datu ezkorrik ematen dabil, eta azken hila-beteotan autonomien buru jarri da enpleguaren suntsiketaren.

EAJk eta Urkulluren gobernuak gogotik saiatu behar dute langabezia murrizten, eta oinarritzeko den gai honetara bideratutako politikak eta planak sortzen. Gure Durangoko Udalak ere, bere aukeren neurrian, kontratazioak bultzatu behar ditu, eta negozio bat martxan jartzen dutenen, eta gure herrian dauden enpresa txiki, ertain eta handien baldintzak hobetu behar ditu.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua industriagunea, 66
Tel./Faxa: 946 827 890
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresa

A. Urreta
podóloga

Amara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behe - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Udaleko, Alcoako eta institutuako ordezkariak plakaren ondoan.

Institutuak esker ona adierazi dio Alcoari urteetako laguntzagatik

Zornotzako institutuak hainbat azpiegitura hobetu ditu Alcoa fundaziotik jasotako laguntzari esker

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuak hainbat urtean Alcoa fundaziotik jasotako laguntza eskertzeko ekitaldia egin zuen martitzenean. 2001etik hona, 156.600 euro jaso ditu institutuak Alcoaren eskutik, eta diru horregaz hainbat azpiegitura hobetu dituzte, eta ikasleek euren formakuntza osatzeko baliabideak eskuratu ahal izan dituzte.

Institutuko areto nagusian izan zen ekitaldian Zornotzako Alcoa enpresako produkzio zuzendari Alfonso Martínez, eta udaleko Andoni Agirrebeitia (EAJ) eta Ziortza Makazaga (Bildu) zinegotziak batu ziren, besteak beste. Ekitaldiaren ostean, Alcoaren omenez institutuan

ipinitako plaka bat inauguratu zuten. Institutuak 56.200 euro jaso ditu aurten Alcoa fundaziotik. Diru hori automatismo gela hornitzeko erabili dute. Hain zuzen, hiru estazio dituen zelula malgu bat erosi dute. Aurretik beste 100.300 euro jaso dituzte Alcoatik, eta hainbat berrikuntza egitea ahalbidetu die.

Ilustrazio lehiaketa

Bestalde, udalak eta Dendariak elkarteak sustatutako ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin dute asteen. Eukene Diaz eta Xabier Gutierrez (Karmengo Ama ikastetxea), eta Izaro Larruzea (Urritxe institutua) izan dira irabazleak. Idazlan lehiaketa, berriz, Imanol Gonzalezek eta Andrea Martinek irabazi dute.

Barraski baserriari azpiegiturak egiteko 40.000 euro aurrekontuan

Alkatearen ustez, bizilagunak dira "kaltetuak"

ATXONDO J.D.

Barraski inguruko etxebizitza proiektua eta bertako azpiegitura lanak gelditu daude aspaldiko urteetan. Norvisa promotoreak lanak erdibidean utzi zituen eta gainera azpiegiturengatik zor zionetik zati bat bakarrik ordaindu zion Udalari. Gune horretan Barraski izeneko baserria dago, inguruari izena ematen diona. Baserria erabat amaituta dago, eta bizitzera sartzeko

prest, baina azpiegiturak falta zaizkio. "Bizilagunak kaltetuak dira, eta ez dute errurik. Baserri horri zerbitzu horiek zelan eman aztertzen ari gara, eta horretarako diru atal bat bideratu dugu aurrekontuetan", adierazi du Rosa Elizburu alkateak. Hain zuzen, Barraski izeneko baserriari azpiegiturak ahalbidetzeko (ura eta argia, adibidez) 40.000 euroko atala bideratu du udalak inbertsioetan.

'Euskaraz gara' mezua, udalerrri euskaldunen eguna babesteko

OTXANDIO J.D.

Bihar, Udalerri Euskaldunen Eguna ospatuko dute Tolosan (Gipuzkoa) Uema barruan dauden udalerriek, tartean Otxandiok. Eguna girotzen hasi, eta

herriarrei bertaratzeko gonbita luzatzeko, 150 bat lagunek osatutako herri argazkia atera zuten joan zen asteen, *Euskara gara* mezua osatuta. Egunaren helburua da udalerrri euskaldunen euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua lau haizetara zabaltzea, eta herritarren sentsibilizazioan eragitea. Adibidez, musika, bazkaria eta gaztetxoentzako ekitaldiak egongo dira Tolosan, egun osoan.



Ekainaren 6an plazan ateratako argazkia, 'Euskaraz gara' berbak osatuta.

> DURANGALDEA ASTEON

Errepublikaren alde batu dira

PROTESTA > Espainiako erregeztan aldaketa datorren honetan, errerepublikaren alde kaleira irten dira zenbait herritar. Durangon ere elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, udalderri aurrean, hogeitabat lagunek. Partaideen artean Idoia Agorria PSE-EEko zinegotzia ere egon zen. Erreferendum bat egitea eskatu zuten.

EH Bilduren deialdiak

BATZARRAK > EH Bildu koalizioak batzar zabalak antolatu ditu datorren asterako Durangon. Astelehenean, 19:30ean, Herria auzo elkartearen batuko dira; martitzenean, 20:00etan, San Faustoko parrokiaren egongo dira; eta eguaztenean, 19:00etan, Pinondo Etxean batzartuko dira.

Spinning maratoni solidarioa

ELKARTASUNA > Bihar, spinning maratoni solidarioa egingo dute Durangon, esklerosi anizkoitzaren aurka. Landako II kiroldegian egingo dute maratonia, 10:30etik 13:30era, ordubeteko hiru saiotan banatuta. Parte hartzeko kiroldegian bertan eman behar da izena, eta bakoitzak gura duen dirua eman ahal du dohaintzan.

Iritzia

Arymux: hizkuntza eraldatzen

Ikuskizun xumea izateari utzi dio dantzak, eta iraultzaren erreminta bilakatu da.

Jadanik, bi arrazoi ditugu Rio de Oro Durango proiektuari eskerrak emateko. Lehena, gure herria nazio menderatu baten alaba-semeen udaleku bihurtzeagatik. Denok gaude Saharak pairatzen duen egoera tamalgarri eta injustuaren jakinaren gainean. Rio de Oro Durangok, 2012ko udan hasitako proiektuaren bitartez, hainbat ume saharai hartzen ditu lau helburu betetze aldera: umeak Saharako desertuaren tenperatura altuetatik urruntzea, elikadura egoki bat eskaintzea, ume bakoitzak behar duen laguntza medikoa eskaintzea, eta, noski, euren bizitzako udarik hoberena pasa dezaten lortzea.

Eskerrak emateko arrazoi hori gutxi izango balitz, Rio de Oro Durangok pasa den igandean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, opari bat egin zigun: Isiltasuna dantzatzen ikuskizuna ekarri

zuen Durangora. Rakelek, Arymux konpainiaren fundatzaileak, eta zeinu-dantzaren sortzaileak, negarra eragin zigun; ez ziren tristurak sortutako malkoak, baizik eta zerbait ezberdina aurkitzen den momentuaren emozioagatik botatukoak. Artea beti izan da, gauza askoren artean, komunikabide bat; baina, zoritxarrez, batzuetan ulertezina askorentzat. Arymuxeko artistek, ordea, euren artearen bitartez, zeinu-dantza, komunikazioaren mugak apurtzen dituzte mezu bat helarazteko; mezu hori da, hain zuzen ere, komunikazioaren mugak apurtu daitezkeela.

Rakelek, zeinu-dantzarekin, gorrei musika transmititzea ez ezik, ezgaitasun hitza txikitzea ere lortu du. Iraultza ez da ezgaitasunen bat duten pertsonak goitik laguntzea, baizik eta, guztiok gai garen mundua behetik eraikitzea.

Eskerrik asko, Rio de Oro Durango



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Aitor Urresti | Goiener kooperatiba | Bilbo, 1975

“Kontsumitzaileok zer-nolako energia kontsumitu nahi dugun erabaki dezakegu”

Goienerreko kideek energia berriztagarrien inguruan sortu duten kooperatiba aurkeztu dute Berrizen



> BERBAZ Jone Guenetxea Energia berriztagarrien kontsumoa bultzatu guran, Goiener kooperatibak ohiko elektriken alternatiba eskaintzen du. Aitor Urrestik ekimen honen inguruko berbaldea eskaini du asteon, Berrizen.

Zelan sortu da Goiener kooperatiba?

Duela urte pare bat sortutako ekimena da. Berriztagarrien aldeko apustua egin behar zela iritzi genion, eta, gainera, sistema osoa gizarteratuta egin behar zela hori. Europa mailan guzti honen inguruan zer egiten ze-

biltzan aztertuta, eredu hau ezagutu genuen: berriztagarrien kontsumo kooperatibak.

Kooperatiba hauek zelan funtzionatzen dute?

Kooperatiba hauek elektrizitatea sortzen dute, eta, ondoren, saldu egiten dute. Horixe izan zen Goienerreko hasierako apustua. Baina, une horretan Madrilgo gobernuak luzapen bat sartu zuen energia berriztagarrien instalazio berrien inguruan, eta, azpiegiturak ezin zirela modu errazean egin ikusita, momentuz elektrizitatea saltzen bakarrik hasi gara.

Zein da kooperatibaren helburua?

Goienerren helburu nagusia energia berriztagarrietatik datorren elektrizitatea saltzea da. Oinarri horren inguruan hainbat ondorio sortzen dira. Alde batetik, geroago eta energia berriztagarri gehiago saldu, geroago eta energia zikin gehiago kentzen dugu sistematik. Bestetik, energia demokratizatu egiten dugu. Guk geuk, kontsumitzaile garenek, zer-nolako energia kontsumitu nahi dugun eta zelan kontsumitu nahi dugun erabaki dezakegu. Gainera, kontsumo arduratsua bultzatzen dugu. Goi-

nerren helburua ez da ahalik eta elektrizitate gehien saltzea, baizik eta elektrizitate hori modu arduratsuan kontsumitzea. Ildo horretatik, efizientziaren eta energia aurreztearen inguruan gomendioak ematen ditugu.

Zer abantaila du kooperatiba honetan parte hartzeak elektrika bategaz kontratua egitearekin alderatuta?

Kontsumo arduratsua ikuspegitik, kontsumitzailea elektrizitatearen protagonista izatea lortzen dugu. Kooperatiba bat da, beraz, gure erabaki guztiak asanblada batean hartzen dira. Era berean, azken aldian hainbat albiste ezagutu ditugu elektrikek hartutako erabakien inguruan. Une honetan Iberdrolak erabaki du Garoñaren bizitza luzatzea. Kontsumitzaile moduan horren aurrean zer egin dezakegu? Enpresa horretatik kanpora joan; eta, kasu honetan, beste alternatiba bat dugu eredu garbi baten aldeko apustua egiteko.

Zelan hartu daiteke parte Goienerren?

Elektrizitatea bazkideei bakarrik saltzen diegu, beraz, lehengo pausoa bazkide egitea da. *Goiener.com* webgunean oso erraz egin daiteke. Ondoren, kontratua sinatzeko aukera duzu. Une honetan 1.700 bazkide eta 1.100 kontratu ditugu. Bazkide egiteko 100 euro jarri behar dira. Izatez, kopuru hori kooperatibak merkatuan elektrizitatea erosteko aurreratu behar duena da. Kooperatibatik irten nahi duenari dirua itzuli egingo genioke. Kontratua ere webgunean erraz aldatu daiteke Goienerrean. Mugikorra konpainiaz aldatzea baino errazagoa da.

Saltzen duzun energia zelan sortzen da?

Une honetan Euskal Herriko enpresa bategaz dugu kontratua. Horrek enpresa handientzat elektrizitate berriztagarriaren salerosketa egiten du. Energia eolikoa eta eguzki energia da gehienbat. Hala ere, gure asmoa bertako ekoizleak zuzenean kontratatzen hastea da, eta beraieirostea elektrizitatea. Gure proiektuak argi dauka bertakoa

dela. Tokiko energia hartu, eta energia hori tokiko pertsoneri saltzea da asmoa. Batetik, tokian tokiko ekonomia eta energia sustatu gura dugu. Bestetik, arrazoi tekniko eta ekologikoa dago. Urrunetik energia erosi gura badugu, sare elektrikitik etorri behar da, eta sare elektrikoan galera batzuk daude. Energia geroz eta gertuago sortu eta ekoiztu, geroz eta gehiago aurrezten da.

“**Hornikuntzan ez dago alderik, sare elektriko bera erabiltzen dugulako**”

Dituzuen 1.700 bazkideek alderik nabaritu dute elektrizitatearen hornikuntzan?

Ez dago alderik, sare elektriko bera erabiltzen jarraitzen dugulako. Guk ezin dugu ziurtatu bazkideen etxera sartzen den elektrizitatea energia berriztagarrien bidez heldu dena denik. Erraz azaltzearren, sistema hau igerileku baten parekoa da. Hainbat lekutako ura sartu dezakezu igerileku batera, eta, bertatik ura ateratzen baduzu, ezin duzu ziurtatu leku batetik edo bestetik sartu duzun ura den, nahastuta dagoelako. Gure 1.700 bazkideek kontsumitzen duten energia berriztagarrien bidez sareratzen dugu. Geroz eta bazkide gehiago izan, orduan eta energia berriztagarri gehiago sareratuko dugu.

Elektriken eta zuen tarifen artean alderik badago?

Momentuz ez. Hala ere, azken aldian gobernuak elektriken tarifa aldaketa egin, eta horrek bezeroekiko babes falta eragin du. Hau da, kontsumitzaileok ez dakigu une bakoitzean elektrizitatearen prezioa zenbatekoa izango den. Guk hiru hilabeteko prezio bat jartzen dugu. Merkaturako prezioaren batez besteko bat izango litzateke. Gure abantaila da gure enpresak garestiago salduko balu, elektrizitate horrek irabazi handiagoa eragingo lukeela. Gure kasuan kooperatiba bat garenez, guztion artean erabakiko dugu irabazi horiekin zer egin.

UDA KO GEHIGARRIA



 **EROSKI**
zurekin

  
eroski.es


Operación
Veranoski



LA ESPAÑOLA
Oliba-olio
birjina

1,74€ 1 erosita
3,49€

2. alea
%50



S.ORSOLA
Italiako Lambrusco
ardo gorria, 75 cl

1,34€ 1 erosita
2,69€

2. alea
%50



BUITONI
Ore fineko
pizza guztiak

1,24€ 1 erosita
2,49€

2. alea
%50

Ekainaren 12tik 25era arte.
Arrandegian, ekainaren 12tik 18ra arte.
Arropa, bazar eta etxetresna
elektrikoetan ekainaren 25era arte.



Euskara bidelagun dela, barnetegi ibiltariak antolatu ditu AEK-k

Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duten barnetegi ibiltariak antolatu ditu AEK-k; oinezkoa abuztuan izango da, eta uztailean egingo dute bizikletaz

Aurreko urteetako harrera onak bultzatuta, aurten ere barnetegi ibiltariak antolatu ditu AEK-k. Gela itxiak, liburuak eta etxeko lanak hamasei egunez alde batera utzi, eta, euskara bidelagun dela, parte-hartzailerik Euskal Herria alderik alde zeharkatuko dute lagunartean. Urtero legez, aukera bi eskaintzen ditu horretarako barnetegi ibiltariak: oinez edo bizikletaz.

Bizikletaz uztailearen 5etik 19ra osatuko dute barnetegia. Urduñatik (Bizkaia) abiatu, eta, mendatez mendate, 1.000 kilometro inguru egin ondoren, Zarauzko (Gipuzkoa) hondar-

tzan amaituko dute; tartean, Gorbeialdea, Arabako Lautada, Urbasa mendilerroa, Handia, Ultzamako herriak eta Erronkaribar zeharkatuko dituzte.

Egunean 65 kilometro egingo dituzte batez beste, partaideen erritmoan. Bidean behar beste geldiune egingo dituzte interesgarri deriztzen lekuak ikusteko: etapa askotan bide erraza-goak eta laburragoak hartzeko aukera egongo da. Gainera, euskaragaz lotutako ekintzak egingo dituzte: tokian tokiko hiztunekin hartu-emanetan ipiniko dira, eta jarduera kulturaletan parte hartuko dute.

Bestalde, oinezko barnetegi ibiltaria abuztuaren 2tik 16ra izango da. Barnetegi horretan Euskal Herria mendebaldetik ekialdera zeharkatuko dute. Bizkaiko Areatza ingurutik abiatu, eta Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar eta bestelako mendigune ederretatik igaro

ondoren, Euskal Herriko gailurrean amaituko dute aurten go abentura, Nafarroako Hiru Erregeen Mahaian, hain zuzen. Egunean 20 eta 25 kilometro artean egingo dituzte, batez beste. Bizikletan legez, oinezkoan ere lasterbideak egongo dira aukeran, erritmoa partaideek markatuko dute, eta hainbat geldialdi egingo dituzte tokian tokiko hiztunekin berba egiteko eta, bide batez, ingurua ezagutzeko.

Barnetegi ibiltari batean zein bestean erosoago ibiltzeko, pisu guztia furgonetaz eramango dute (motxilak, kanpin-dendak, mahaiak eta aulkiak, besteak

beste). Irakasle-antolatzaile batek gidari lanetan jardungo du kalean, eta etapa bakoitzaren ibilbidea eta ikusiko dituzten lekuei buruzko informazioa dakarren liburuxka banatuko dute.

Durangaldetik ere igaroko dira; Otxandio ingurutik, hain zuzen. Oinezko ibilbideko lehenengo etapa Otxandion amaituko da, abuztuaren 2an, eta handik ekingo diote bigarren etapari (Otxandio-Orixol-Leintz Gatzaga) hurrengo egunean. Bizikletaz ere Otxandiotik ekingo diote bigarren etapari, uztailearen 6an, eta Opakuaraino (Araba) joango dira.



Iaz oinezko barnetegi ibiltarian parte hartu zuten lagunak, mendi tontor batean.

BARNETEGI IBILTARIAK

Barnetegia: bizikletaz

- **Noiz:** uztailearen 5etik 19ra
- **Ibilbidea:** Urduñatik Zarautzera
- **Prezioa:** 498 euro
- **Izen-ematea:** ekainaren 25era arte
- **Nola:** www.aek.org

Barnetegia: oinez

- **Noiz:** abuztuaren 2tik 16ra
- **Ibilbidea:** Areatzatik Hiru Erregeen Mahaira
- **Prezioa:** 498 euro
- **Izen-ematea:** uztailearen 25era arte
- **Nola:** www.aek.org

euskararen gustu guztiak

aek



EUSKALTEGIAK
KALORIKO TITULUAREKIN
ONLINE-KAUTSIOAK



BARNETEGI IBILTARIAK
ONLINE-EMATEA
BENTZARRAK
BUTIKAK



FAMILIA BARNETEGIAK
EUSKARAREN BARRIAN
SAREAN-ARABAKIN
EUSKARAREN BARRIAN



2 ASTEKO BARNETEGIAK
EUSKARAREN BARRIAN
EUSKARAREN BARRIAN

DURANGALDEKO AEK

Durangon

94 681 73 49 / abarrak@aec.org

Elorrión

94 658 21 11 / abizari@aec.org

zaldibar@aec.org • abadino@aec.org • berriz@aec.org

eman izena
www.aek.org



Ni banoa!

**BEGIRA
PHOTO FESTIVAL**
DURANGO 14.06.10

begiraphoto.com <

Babesleak

Kolaboratzaileak

Antolatzailea



Bizkaiko seigarren autokarabana gunea izango da Elorrion egin asmotan dabiltzana

Gaur egun, autokarabanentzako bost gune daude Bizkaian; Durangaldean bat ere ez oraindik



Elorriko gunean ur zikinak botatzeko aukera edukiko dute turistek.

Elorrion autokarabanentzako gune bat egiteko asmoa du Elorriko Udalak, 2015ean. Ez da atzo goizeko proiektua. 2013an Bilduk egindako parte-hartze prozesutik irten zen gaia, eta harrezkero proiektua lantzen

aritu dira. Udaletik jakinarazi dutenez, gune hori San Jose kalean egokitzea aurreikusita dute, eta 241.465 euroko diru atala bideratuko dute horretara.

Azkenean, proiektua aurreikusituz zuten moduan gauzatzeko

bada, Bizkaiko seigarren autokarabanentzako gunea hartuko du Elorriok. Bermeon dagoena izan zen aurrenekoa. Kostaldetik irten gabe, Lekeition eta Mendexan ere gune bana daude; Bilbon beste bat dago, eta, mo-

mentuz, autokarabana gunerik berriena Enkarterrietako Lanestosa herrian dagoena da.

Gipuzkoak bikoiztu egiten du Bizkaiko kopurua, eta hamar herritan hamaika gune zenbatu daitezke: Donostian bi daude,

eta Beasain, Bergara, Errenteria, Hernani, Irula, Legazpi, Tolosa, Zarautz eta Zumaian bana. Arabak gune bi ditu: Amurrioren eta Gasteizen. Eta Nafarroak bost: Arguedas, Berriozar, Cascante, Faltzes eta Tafallan.

Elorrion Europako autokarabanazaleak erakarri gura ditzute. Ez da harritzekoa, Frantzia gertu dagoela eta errepidean 500.000 autokarabana inguru

Bizkaian Bermeokoa izan zen lehenengoa. Lekeition, Mendexan, Bilbon eta Lanestosan ere bana daude

dabiltzala kontuan hartuta. Egitasmoaren arabera, hamaika autokarabana sartzeko tokia edukiko luke, eta autokarabana gune batek behar dituen azpiegitura guztiak izango lituzke. Ur zikinak botatzeko aukera edukiko dute turistek, baita ur garbia eta argindarra hartzeko ere. Gainera, gaua igaro ahalko dute, baina ezingo da kanpatu.

Era berean, proiektuak San Jose inguruan hobekuntzak ekarriko ditu. Bertarainoko espaloia egingo dute, eta 170 metro karratuko jolastokia eraikiko dute, besteak beste.



Iñigo Sebastian

Sorbeltz Autokarabana Erabiltzaileen Euskal Elkarte presidentea

“Berez promozionatzen dira guneak Internet bidez”

Gune berriak turismoa sustatuko lukeela uste du

Zer iruditzen zaizu Elorriko Udalaren asmoa?

Orain urte bi udaleko ordezkariekin batu ginen, eta horrelako ekimen bat aurrera eramateko behar diren azpiegiturak zeintzuk diren azaldu genien. Asmoa aurrera irteten bada, asko poztuko nintzateke. Albiste bikaina da. Durangaldeko lehenengoa litzateke.

Elorrion turismoa sustatzea da helburuetako bat.

Turismoa sustatzeko oso modu egokia da. Autokarabanen fenomenoak hazkunde ikaragarria izan du Europan. Espainiako estatuan 50.000 inguru daudela kalkulatu da, baina Frantzia 500.000 inguru egon daitezke, eta Alemanian 300.000tik gora. Gu Frantziatik gertu gaude, eta eremu hori har dezakegu. Elorrion zein Euskal Herrian turismoa sustatzeko modu aproposa dira autokarabanentzako guneak. Gaur egun, Interneten

webgune ugari daude tankera horretako guneen gaineko informazioa jasotzen dutenak. Beraz, udalak ez du gastu askorik behar promoziorako, Internet bidez berez promozionatzen dira. Gainera, publizitaterik onena ahoz ahoko da. Pertsona bat gustura egon bada, toki hori gomendatu egingo du foroetan. Elorrio ez da paseko herria; balio historiko handiko eraikinak ditu, besteak beste.

Euskal Herrian hazi egin da autokarabanak dituztenen kopurua azken urteotan?

Baietz esango nuke. Krisiaren eraginez hazkundera geratu egin da apur bat, baina, oro har, gorantz doa, nire ustez.

Autokarabanazaleok topaketa asko egiten dituzuela esaten da.

Bai, egia da. Urte askoan este-reotipoen aurka egin behar izan dugu, batzuetan ez gara izan ondo ikusiak. Baina hori aldatu egin da azken urteotan. Familia giroko turismoa da, eta, azkenean, hartu-emanak sortzen dira. Gaur egungo Sorbeltzen zuzendaritza batzordea horrela eratu genuen: Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako ordezkariak daude, eta Ipar Euskal Herriko bat batzen ere saiatu ginen. Durangaldean ere badago autokarabanekiko zaletasuna. Gogoan dut nire aurreko autokarabana Durangoko bati saldu niola.

ALLUITZ MOTOR, S.L.



Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.946 202 004 Faxes: 946 200 998



Bizipen ezberdin bat egunero

Etxalarko barnetegia: eguneroko bizitza euskaraz partekatzen

Uztailaren 21etik 31ra eta abuztuaren 1etik 10era arteko egonaldiak eskaintzen dituzte barnetegian

Euskarak biltzen du Etxalarko (Nafarroa) Mokorreko bordako barnetegiko jardun guztia. Oso da ugaria bertako eskaintza: naturagaz, osasunagaz, komunikazioagaz, herri historiagaz eta mitologiagaz lotura daukaten ekimenak egiten dituzte bertan. Aukeran daukaten espazioa euskararekiko eta naturarekiko lotura egiteko oso aproposa zela ikusita, duela bi urte zabaldu zuten Etxalarko barnetegia.

Euskara ikasle askoren arazo izaten da ikasitakoa “non hitz egin”, norekin praktikan ipini. Euskaraz bizitzeko aukera bilatzen duten horientzako eskaintza egitea bururatu zitzairen Etxalarko barnetegiko ardura-dunei orain urte bi. “Konturatu ginen gure ingurua horretarako prest zegoela: bai Etxalar herria, bai ingurua”, azaldu du Jone Arrospide proiektuaren bultzatzaileetako batek.

“Gure asmoa da eguneroko bizitza euskaraz egiteko aukera ematea gugana datozenei. Egunerokotasuna euskaraz partekatzea: ogia egitea, dantza egitea, auzolanean aritzea, mendiko ibilaldi bat egitea eta gure kultura sakontzea, adibidez”.

“Gure asmoa da eguneroko bizitza euskaraz egiteko aukera ematea gurera datozenei”

Mitologiaren eta sendabelleren inguruko jakintza partekatzen dute Etxalarko barnetegira doazenekin, esaterako. “Inguruan daukagun aberastasun kultural hori guztia ezaguta-

razi gura dugu: Baztan aldeko agoteen eta Zugarramurdiko kobazuloen historia, kasu”. Eta etxalartarrek parte hartzen dute horretan: bertakoen ahotik jasotzen dute barnetegiko bisitariak herriaren, inguruaren eta bertako ondare kulturalaren berri.

Mendia eta itsasoa, eta bakoitzari loturiko kultura partekatzen dute barnetegian: Etxalar barnealdeko herria izan arren, Txingudiko badia, esaterako, hurbil dauka.

Bertakoen ahotik jasotzen dute bisitariak inguruaren eta bertako ondare kulturalaren berri

Uda honetan ere egonaldi bi eskainiko dituzte Etxalarko barnetegian: uztailaren 21etik 31ra artekoa lehena, eta abuztuaren 1etik 10era artekoa bigarrena. Oraindik ere badago izena emateko aukera. Egonaldiaren prezioa 380 eurokoa da, eta informazio zehatzagoa www.etxalarkobarnetegia.blogspot.com webgunean dago ikusgai.

Urtean barrena asteburuko egonaldiak egiten dituzte Etxalarko barnetegian. 70 laguneko taldea eduki dute, esaterako, oraintsu. Hego Euskal Herriko jendea jasotzen dute gehien, baina baita Europako beste herrialde batzuetakoa ere.

Euskaltzaleen Topaguneak eta Etxalarko Suakin elkarteak bultzatzen dute Etxalarko barnetegia: naturarekiko eta gizakion arteko euskarazko harremana eta komunikazioa oinarri duen ekimena.



Euskararekiko eta naturarekiko lotura egiteko oso aproposa da barnetegia kokalekua.



Urtean barrena asteburuko egonaldiak egiten dituzte Etxalarko barnetegian.

Errekastoek eta basoek inguraturiko borda batean

Etxalarko Mokorreko baserrian dago barnetegia

Nafarroa iparraldeko Bortzirriak eskualdeko Etxalar herrian dago barnetegia. Mokorreko izeneko bordan. Leku ederrean dago barnetegia kokatuta: naturak, basoek eta errekek inguratuta.

Lau lagunentzako bost gela eder dauzka Mokorreko baserriak, eta beste bi gela bikoitz ere bai. Taldean egoteko, berba egiteko eta irakurtzeko, adibidez. Gainera, askotariko ekin-tzak egiteko, erabilera anitzeko 90 m²-ko gela bat ere badauka etxeak, eta baita 70 m²-ko egon-

gela bat eta okindegia ere. Izan ere, barnetegian egiten duten ikastaroetako batean ogia egi-

ten irakasten dute. Asko zaintzen dute bertan eskaintzen duten jatekoa ere: ahal den neurrian, barnetegian jaten dena ekologikoa izan dadin saiatzen dira arduradunak. Izan ere, antolatzaileen berbetan, bidaia bat da barnetegian proposatzen dutena: norbere barrura egiten den bidaia.



Norbere barrura bidaia egitea proposatzen dute barnetegiko arduradunek.

ETXALARKO MINTZA BARNETEGIA
“Euskara bizi bizian”

2014ko uda
Uztailaren 21etik 31ra
Abuztuaren 1etik 10era



www.etxalarkobarnetegia.blogspot.com

Tel.: 618 303 582 (Jone)

380€ barnetegia eta egonaldia

Etxalarko Mokorreko Bordan, eta inguruetan

Antolatzailea Laguntzailea



AKADEMIAK

“Ingelesa hobeto jakiteak ate gehiago zabaldu ahal dizkizu”

Udan AEBetara joango da Peio Azkarate gazte durangarra, ingelesa ikasteko helburuagaz

> ELKARRIZKETA M. Onaindia
Udan Ameriketako Estatu Batuetara joango da Peio Azkarate (Durango, 1998). Gazte askoren moduan, ingelesaren ikasketan sakondu gura du, eta hango familia batez egongo da bost astez. Saint Louisekoa da familia hori, Missouri esta-

tukoa. Gainera, bidaiatzeko aukera ere edukiko du. Argi erantzun ditu galderak, bertolari senaren seinale.

Noiz joango zara AEBetara? Ekainaren 25ean joango naiz, bost asterako. Tokatu zaidan familiari mugitzea interesatu



IKASKETA ZENTROA
Kalebarria, 30 behea 2 I
48200 DURANGO
Tel.: 685 754 299
www.ikusi-eta-ikasi.com

UDAN ZEHAR 

ESKOLARAKO LAGUNTZA
FIRST CERTIFICATE PRESTATZEKO
IKASTAROA GOIZ ETA ARRATSALDEZ
10:00-13:00 / 15:30-17:30 / 18:00-20:00
NATURAL ENGLISH
3-6 URTE BITARTEKO HAURRENTZAT
ZABALIK 2014 - 2015
IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA



emaiozu euskarari | MATRIKULA ZABALIK

- 2014ko 2. DEIALDIRAKO AZTERKETAK PRESTATZEKO MODULUA: EGA eta HABEko 1., 2. eta 3. mailak. (6 aste: uztailearen 1etik 11ra eta irailaren 1etik 26ra).
- AUTOIKASKETA MODULUA (10 aste): ekainaren 23tik uztailearen 24ra eta irailaren 1etik 30era.
- Asistentzia beka eta dirulaguntzak langabetuentzat.

Saibi kalea 10,3.a • 48200 Durango • 946 030 040 • www.durangoeuskaltegia.net

UDAL EUSKALTEGIAK



SOINUA MUSIKA IKASTEGIA MUSIKAZ GOZATU!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIXA,
GITARRA ELEKTRIKOA, ABESBATZA

Kalebarria, 1 -1ª - Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net





Murrieta - Iruia, 5A y 3E
Telefono: 94 681 50 77
48200 DURANGO

IKASTARO TRINKOAK EKAINEAN ETA UZTAILEAN

www.pymsidiomas.com

Cambridge English Language Assessment



Exam Preparation Centre

Jatorrizko irakaslea
Tel.: 946 815 677



zaio, eta nora joango garen esan didate. Astebetez Kanadara joango naiz, eta gero udaleku antzeko batzuetara ere bai, eskaut gisa-edo [barrez].

Eta zelan okurritu zaizu?

Orain dela urte bi Ingalaterrara joan nintzen familia bategaz, baina egun osoan neuzkan eskolak. Nire arrebak, nire adinagaz ere, orain egingo dudana egin zuen, eta oso pozik egon zen. Horregatik, ni ere joango naiz.

Zer helburugaz zoaz?

Lehenengo, ingelesa ikastea. Orain batxilergora sartuko naiz, eta ingelesean asko lagunduko dit. Azken batean, gastu bat da, baina inbertsioa ere bai. Beste mundu bat ere ezagutuko dut han.

Zertan hobetu gura duzu?

Ulermenean eta ahozkoan hobetu gura nuke. Askotan idatzia lantzen da, gramatika, baina ulermena ez. Han ezingo diot galdetu irakasleari euskaraz.

Orduan, eskolarik ez duzu hartuko?

Ez. Aurrekoa esperientzia ona izan zen, baina ingelesarekiko ez, ez nuen askorik ikasi. Familia bategaz arreta handiagoa edukiko dut.

Ingelesa ikastea beharrezkoa al da?

Bai, beharrezkoa dela uste dut. Sistemak-edo denok ingelesa, euskara eta gaztelania jakitea gura du. Zehaztasun txikiak dira desberdin egiten gaituztenak, eta ingelesa hobeto jakiteak ate gehiago zabaldu ahal dizkizu. Nik ez daukat titulurik, baina komunikatzen ikasten badut, asko lagunduko dit.

AEBak apur bat ezagutzeko ere balioko dizu. Zerbait bereziki ikusteko gogoia daukazu? Familian Irlandako dantzak dantzatzaren dituen bat dago, eta Kanadako Montreal hirira joango gara. Bueltan Niagarako ur-jauzietatik pasatuko gara, eta hori beti izan da nahiko famatua. Nik ere badaukat ikusteko gogoia. Baina, beno, beste gauza

guztiak ere interesgarriak izango dira.

Helburu nagusia ikastea izan arren, ondo pasatzera ere joango zara, ezta?

Bai. Jendea ezagutzea, beste kultura batzuk... Hango bizimoduari eta gauza kulturaleri buruz ikastea ere ondo egongo litzateke.

Bertsolaria ere bazara. Han bertsotan egiteko modurik topatuko duzu?

“*Hango bizimoduari eta gauza kulturaleri buruz ikastea ere ondo egongo litzateke*”

Nire ezaugarrietan bertsolari nintzela ipintzeko esan zidan amak, eta, beharbada, zerbait galdetuko didate. Biografian ipintzerakoan, askotan jendeari interesa pizten zaio. Adibidez, eskalada gustuko dudala ere ipini nuen, eta udalekuan eskalada egongo dela esan didate. Pentsatzen nabil *Bertsolari* dokumentalaren DVDa eroan, eta eurei oparitzea. Momentuz ea zelan hartzen duten Euskal Herriko kultura hori, hori ere azaldu beharko zaielako.

“*Pentsatzen nabil 'Bertsolari' dokumentalaren DVDa eroan, eta eurei oparitzea*”

Gaur Durangaldeko Kopla Txapelketan kantatuko duzu. Zer esperantza daukazu?
Beno, berde samar nago oraindik. Hor egoteagaz bakarrik asko da niretzat.

KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA

Uztailean ikas ezazu margotzen!



IKASTARO BEREZIAK!
Eskatu informazioa eragozpenik barik
Tel.: 946 030 527 / 678 657 676
www.akurutzia.com
Kurutzia, 24 DURANGO

Helduentzako ikastaroak *Haurrentzako ikastaroak*

CRIS ACADEMIA

Musiko Altuna, 11 behea
48200 Durango
Tel.: 606 368 929



- Ikastaro trinkoak uztailean (goizez).
- Ordutegiak adosteko daude.
- Ikastaroak atzerrian, eta ingelesa ikasteko udalekuak Espainian Stepe-egaz.
- Zabalik 2014-15 ikasturterako matrikula epea.
- E-mailaz onenak lortuko dituzu.
- Ingeles maila guztiak.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.

Matrikularik gabe

ERIN english academy

UDA KO IKASTARO TRINKOAK

Ekainaren 30etik uztailearen 24ra

HELDUAK. 4 ordu egunero
(Cambridge: FC, Advanced azterketak prestatzeko)

HAURRAK. ordu bat eta erdi egunero

APUNTATU ZAITEZ!!!

children and adults
c/ Learreta Markina, 8 - BERRIZ
mugikorra: 647 960 981
erinenglishacademy@hotmail.com

4 eta... 100 urte bitartekoa bazara eta musika ikasi eta gozatzeko gogorik baduzu, erdu musika eskolara

matrikula-epea zabalik ekainaren 1etik 25ra

Matrikulazio lekua: Musika Eskolako Idazkaritza
Ordutegia: Astelehena 11:30-15:00 eta 16:00-19:00
Martitzenetik barikura, 11:30-15:00

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioa eta Musika Eskola DURANGO UDALA

Escuela de Música y Conservatorio Bartolomé Ertzilla INFO AN DURANGO

Montevideo, 7 - Tel.: 946 030 035 - bertzilla@durango-udala.net



MATRIKULA ONLINE:
www.durangomusika.net

IKASTEKO TEKNIKAK IKASTARO BERRIA



• irakurmena • ulermena • motibazioa • plangintza • azterketak

www.psicologo.biz

Jon Arruabarrena - Psikologoa 946 033 246
Frantzisko Ibarra, 6 (Durango) 629 245 728

UZTAILEAN

• **Ikastaro trinkoak** (matematika, fisika, kimika, ingelesa...)

• **Talde txikietan zein bakarka**

• Etxeko lanak egiteko laguntza

• **Ikasteko teknikak**



zure ikasketak hobetzeko, zatoz!

Tel.: 946 550 268 / 686 810 203
Niceto Urkizu kalea, 35 behea
48230 ELORRIO



SCIENCE ATTACK CAMP 2014

Zientzia Bizirik S.L (Zamudio)

EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 5 arte

**LEHEN 475€
ORAIN 380€**

SCRATCH PROIEKTUA

Scratch proiektua Science Attack Camp-ren eskutik disenatuta dago 6 eta 16 bitarteko gazteak, programaziora hurbiltzeko. Ingurune atsegin batean egonda, diziplina anitzeko trebetasun ezberdinak garatzea errazagoa da. Trebetasun hauek jokuak sortzeko programetan erabiltzen dira.

Parte-hartzaileek, Scratch hizkuntzarekin programazioa ikasiko dute. Hau lortzeko, proiektu txiki bat prestatuz gero, zehatz-mehatz aurkeztuko dugu. Hau eginez, trebetasun garrantzitsuak eta programazioaren elementu basikoak

SCRATCH PROIEKTUAREN HELBURUAK

* Arazoak konpontzeko eta proiektuen diseinua egiteko trebetasunak bereganatzea.

- Arrazonamendu logikoa.
- Arazo-ebazpena.
- Ideien garapena hasieratik, proiektuaren amaiera arte.



- Kontzentrazioa eta iraunkortasuna.

* Programazio eta ordenagailuen oinarriak.

- Ordenagailuak, programak bidaltzen dituzten zereginak jarraitzen dituzte, pausuz pausu.
- Ordenagailu-programak idazteko, ez da beharrezkoa trebetasun berezia izatea, baizik eta pentsamendu argia eta arduraduna izatea.

Bere zientzia- eta hezkuntza-ibilbideak babestuta, SCIENCE ATTACK CAMP kanpalekuek tailer eta ekintza interaktiboak dituzte eduki nagusizat. Horien helburua parte-hartzaileak ZIENTZIAra hurbiltzea da, eta jarduera guztiak ingelesez dira.

ZIENTZIA BIZIRIKen ez dugu zientzia bakarrik egiten. Jolas ugari eta ekintza osagarriak ditugu programatuta egunero, udalekuak diziplina anitzeko esperientzia paregabea izan dadin, haurrek eta gazteek une atsegina igarotzeko.



**NON? Uanes (Asturias)
Hondartzaren alboan !!**

Totally English



www.madscience.org.es

info@madscience.org.es//946.569.906//620.843.328

“Udalekuetan umeeek, gazteek eta hezitzaileek asko ikasten dute elkarrengandik”

Udan Olgetanek ekainaren 23an zabalduko ditu ateak; Meritxel Etxagibel izango da Berbaroko udalekuetako zuzendaria



Uda ate-joka dugun honetan, umeei eta gazteei udalekuen esperientzia bizitzeko unea heldu zaie. Berbaroko euskara elkartean Meritxel Etxagibel abadiñarra da Udan Olgetan udalekuen arduraduna. Durangoko Behargintzaren instalazioetan 159 ume batuko dituzte aurten, udako ekintzetan gozatzeko gogoz. Baina hori ez da izango Berbaroko uda honetarako antolatuko duen ekimen bakarra. Mendigorriara (Nafarroa) eta Ozaetara (Araba) ere talde bana joango da.

Berbaron hasi berria zara. Zela-ko esperientzia ari da izaten? Esperientzia polita izaten ari da.

Esku artean izan dudan lehen proiektua ikasle etorkinen euskara indartzeko saioen ingurukoa izan da, eta, denbora gutxi egon naizen arren, esperientzia izugarria izan da niretzat. Orain, uda heltzearekin dagoela, udalekuekin gabiltza buru-belarri, oso gustura egia esan. Bulegoan, gainera, giro paregabea dago, edozertan laguntzeko prest daudenak, eta horrek asko errazten du lana.

Orain arte aisialdiko jarduerekin zein lotura izan duzu?

Udalekuetan aritu izan naiz hezitzaile: Abadiñoko udalekuetan, eta euskal udalekuetan, Goñin. Abadiñoko Talde Batuak dantza

taldean ere banabil, urtean barrera umeekin entseguak egiten ditugu, eta hainbat herritara joaten gara dantza egitera.

Udan Olgetan antolatuko duzu. Erronka handia da zuretzat?

Bai, egia esan erronka moduan hartu dut proiektu hau, inoiz ez naizelako udaleku batzuk antolatzen ibili; hala ere, hezitzaile talde jatorra dago, eta guztion artean egindako lanagaz ziur nago udaleku arrakastatsua izango dela.

Udan Olgetanek zein ezaugarri ditu?

Bost asteko iraupena du udalekuak (ekainaren 23tik uztailearen

25era), eta Durangoko Behargintzako instalazioetan izango da. Aurten 159 ume hartuko dute parte, eta bost zentzumenak landuko ditugu; aste bakoitzean zentzumen bati lotutako jarduerak zein irteerak egingo ditugu.

Udaleku asko antolatzen dira opor sasoiaren. Berbaroko udalekuek zer bereizgarri dute? Umeek zer dute gustuko?

Olgetan esaterako ez da udara mugatzen den aisialdi eskaintza, urte osoan ematen den proiektua da, eta horrek umeen aisialdiari jarraipen bat ematea dakar. Baina uda sasoi berezia da umeentzat, eta umeei lagunekin zein hezitzaileekin jolastea, irteerak egitea eta igerilekura joatea dute gustuko, besteak beste.

Beste udaleku batzuk ere antolatuko dituzue. Nora joango zarete?

Aurten ere udaleku finakoak eta udaleku ibiltaria antolatu ditugu. Uztailearen 1etik uztailearen

12ra 8-10 urte bitartekoak Mendigorriara joango dira, eta uztailearen 3tik uztailearen 14ra 10-12 urte bitartekoak Ozaetara. Ibiltaria kostaldean zehar egingo da, eta 13-15 urte bitarteko gazteek hartuko dute parte.

Udalekuetan inoiz joan ez denari zelan azalduko zenioke bertan aurkitu dezakeena?

Udalekuetan aritzea itzelezko esperientzia da, umeei zein gazteetxoek, eta baita hezitzaileek ere, asko ikasten dute elkarrengandik. Hezitzaileak programazioan parte hartzen duen heinean, proiektuaren parte sentitzen da, eta, beraz, itzelezko esperientzia da, programazioa egiten hasten denetik aurrera eramaten duen arte aktiboki, motibatuta parte hartzen dabilenak. Umeei eta gazteek, aldiz, lagunekin, lagun berriekin zein hezitzaileekin ederki pasatzeko eta gozatzeko aukera dute; jolas libre zein talde jolasen eta irteeren bidez, adibidez.



lazio udalekuekiko antolatutako ekintza bat.



otxandioko igerilekuak

ekainaren 15etik irailaren 15era arte

{

11:00etatik
20:00etara

}






PLATERUENA

Landako etorbidea, 4 A - Durango
Tel.: 946 030 300

Uda honetan, **Plateruen Platerak** Bariku eta zapatu iluntzeetan. Razioak, entsaladak, etxeko pizzak, kazolatxoak eta postreak. Egunez, kafetegi giro gozoa eta eguneko menua.



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonaindia, z/g - Durango
Tel.: 946 818 070

Gosariak 07:00etatik aurrera, astelehenetik barikura. Pintxoak. Terraza 10:00etatik aurrera. 19:00etatik aurrera: entsaladak, ogitartekoak, izozkiak, kafeak... Mahai zerbitzua eta giro euskalduna



BODEGUILLA

Traña-Matiena
Tel.: 946 814 385

Terrazan zein barrualdean, razio eta ogitarteko ezin hobeak aurki ditzakezu! Erdu Matiena auzora, ez zara damutuko!

> PLAZAREN



ZERO

Andra Maria, 6 - Durango
Tel.: 946 812 222

Terraza paregabea Durangoko Alde Zaharraren bihotzean. Etor zaitez gure ogitartekoak eta razioak afaltzera eguenetik zapatuta! Astelehenetik barikura itxaroten zaitugu inguru bikainean!



XELAI

Nizeto Urkizu, 37-39 - Elorrio
Tel.: 946 550 266

Elorrion, terraza ederrean, entsaladak, razioak, ardoak, pizzak, ogitartekoak, oilaskoak, postreak... Jateko aukera ezin hobe! Zatoz eta gozatu inguru paregabean!



MOMOTXO

Plateruen plaza - Durango
Tel.: 946 811 006

Jateko zein egoteko leku ezin hobe. Jateko: kazolatxoak, ogitartekoak, entsalada bereziak... Egoteko: terraza nahiz barruko txoko bereziak. Erdu Momotxo tabernara!

PLAZERA >>>

bagoaz

www.bagoaz.com

Txinurrisolo, 6 • 48220 Matiena • Tel.: 944 657 577 • Mug.: 639 346 506 • info@bagoaz.com

TAILANDIA

KOH TAO
open water
urpeko ikastaroa



**KENYA
TANZANIA**

**EZTEI
BIDAIAK**



Begira Photo jaialdia: Durangoko plaza, denda, museo eta aretoak argazkigintza garaikidearen erakusle

Martitzenean hasi zen Durangoko jaialdia, eta ekainaren 29ra arte iraungo du

> ARGAZKIGINTZA I.Esteban Argazkigintza garaikidea ahalik eta herritar gehienei zabalteko helburuz, zortzi erakusketa, sortzaileekin hainbat solasaldi, proiektioak eta tailerrak eskainiko ditu datozen eguntan Begira Photo jaialdiak, Durangon. “Herritar guztientzat antolatzen dugu Begira jaialdia”, azpimarratu dute antolatzaileek aurkezpenean, “ez argazkigintza munduan dabilen jendearentzat bakarrik”.

Leo Simoes jaialdiko zuzendariaren berbetan, “aurrera-pauso handiak” eman ditu Begira Photok aurten, “bai programazioak jasotzen duen alor artistikoari dagokionez, baita bestelako kultur eragileen partaidetzari dagokionez ere”.

Beste diziplina artistiko batzuek ere izango dute asteon hasi den eta ekainaren 29an amaituko den jaialdi horretan espaziorik: Igor Elortza eta Unai Iturriaga Durangoko bertsola-

riek parte hartuko dute, esaterako, ekainaren 21eko Andra Mariko elizpeko argazki proiektioan; eta Los Espontáneos taldeko antzerkigileek irekiko dute ekainaren 20ko “fotomural kolektiboaren” egitasmoa.

Zalao Fuertes jaialdiko koordinatzaileak esan duenez, “bertako gazteek egiten dutenari, baina baita munduan egiten denari ere” lekua egitea da Durangoko argazki jaialdiaren jomuga. Horrela, esaterako, Ma-

rokoko argazkigintzaren lagin bat erakutsiko dute, ekainaren 11n, Arte eta Historia Museoan; eta Perukoa, 18an, leku berean. “Ezezagunagoa, ikusteko zailagoa den argazkigintza mota hori ere erakutsi gura dugu”, gehitu du Leo Simoesek.

Rous Boisier txiletarra izango da Begira Photo jaialdiko nazioarteko gonbidatu berezia: *Pérdida* erakusketa dakar Boisierrek Durangora, eta solasaldi batean ere parte hartuko du.

Argazkilari euskaldunen lanak izango dira aurtengo Begira jaialdiko protagonista nagusiak: Godzilla, Helena Goñi, Segun Lazkano, Garazi Erdaide, Bego Antón, Goiuri Aldekoa-Otalora, Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrenaren lana ezagutaraziko dute.

Antolatzaileen berbetan, parte-hartzea bultzatzea da aurtengo jaialdiaren helburu nagusietako bat, eta horren erakusle da, esaterako, udaletxeko plazan,

horman ipiniko dituzten bost autorretratu aukeratzeko deialdian 150 argazki jaso izana.

Herritarrak obra kolektibo batean parte hartzea ere gonbidatuko dituzte, ekainaren 20tik 29ra. Adibidez, kamera estenoipeiko handi bat ipiniko dute ekainaren 21ean, 18:00etan, Ezkurdin, F-Stop Durangoko argazki elkartearen parte-hartzeagaz jendeak XIX. mendeko argazkigintza bertatik bertara ezagutu dezan.

Simoes: “Ezezagunagoa, ikusteko zailagoa den argazkigintza mota ere erakutsi gura dugu”

Argazkigintza garaikideari buruzko jaialdiaren programazioaren inguruko informazio guztia, www.begiraphoto.com webgunean dago ikusgai.



Godzilla argazkilariak Merkatu plazan ipini du ‘Cabanga’ lana.

Zazpi ikuskizun Kalez Kale jaialdiaren VIII. ediziorako

Ekainaren 19an Ganso & Cia taldearen ‘Walkman’ antzezlana abiatuko dute Iurretako jaialdia

> ANTZERKIA I.E.

Euskal Herriko antzerki konpainiek kalean eskaintzeko sorturiko zazpi obra eskainiko dituzte Iurretako VIII. Kalez Kale jaialdian, ekainaren 19tik 22ra. Euskarazko testua daukaten hiru antzezlana izango dira ikusgai, eta testurik bakoak dira programazio horren barruko beste hiru lan.

Durangoko Ganso & Cia konpainiaren *Walkman* lanagaz hasiko da jaialdia ekainaren 19an, 18:00etan, Amilburu plazan. Emanaldi horri buruz aritu zen eguaztenean, jaialdiaren aurkezpenean, Gorka Ganso antzelea: “Sinplea eta zentzu askotan oinarritzakoa da antzezlana”, esan zuen, “baina aldi berean oso landua ere” bada *Walkman*.

Ganso & Cia taldeak ohi duen eran, “pertsonaia patetiko baina maitagarri bat” du antzezlana protagonista. Durangoko taldearen emanaldi horren ostean, 20:30ean, Dantzari plazan eskainiko du Tor magoak *Hator magiara* ikuskizuna.

Ekainaren 19tik 21era, egunean bina emanaldi eskainiko dituzte Kalez Kalen: 18:00etan lehena eta 20:30ean bigarrena; eta ekainaren 22ko Toborro magoaren *Magia eszenatokia* ikuskizunak itxiko du jaialdia.

Jaialdia koordinatzen arituen Deabru Beltzak taldeko Oscar Castaño *Garbitxuk* azpimarratu duenez, denetarik ikuskizunak izango dira datorren asteburuan, Iurretan: Malas Compañías konpainia bilbota-



Gorka Ganso aktorea, Iñaki Totorikaguena alkatea eta Oscar Castaño ‘Garbitxu’ jaialdiaren koordinatzailea.

rrak, esaterako, duela aste gutxi aurkeztu duen *Txatarra* ikuskizuna eskainiko du ekainaren 21ean, Amilburun.

Bestalde, egun horretan, eta azken zazpi urteetan egin duten bezala, Kalez Kale jaialdiaren barruan ospatuko dute Musikaren Eguna: herrian zehar danborrada eskainiko dute Maiztegi eskolako umeek, goizean.

Kale antzerki jaialdiaren egitarau zabalaren barruan,

Turukupa taldeko gasteiztarrek musika eta antzerkia uztartuta eskainiko duten *Rezikletas* ikuskizunak ere badu lekurik: berziklaturiko instrumentuak baliatzen dituzte emanaldi horretan. Ekainaren 20an, aldiz, Zirika Zirkus taldeko nafarrek eta Salitre taldeek erakutsiko dute euren lana Iurretan.

“Krisi ekonomikoaren aitzakian hau bezalako jaialdiak bertan behera uzten dituzten

sasioan, Iurretan kulturaren aldeko apustua mantentzen dela ikustea oso pozgarria da”, azpimarratu zuen jaialdiaren aurkezpenean Gorka Gansok.

Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, “duela zortzi urte jaialdia lehenengoz antolatu genueneko helburu bereberkin jarraitzen dugu”. Aldundiaren eta Jaurlaritzaren babesagaz, 14.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute jaialdia.



Zornotza Aretoan ariko dira 6 eta 12 urte arteko antzerkigileak, gaur

Haur Antzerkiaren I. Topaketan parte hartuko dute herriko 100 eskolaumek

> ANTZERKIA I.E.

Larrea, Andra Mari, Karmengo Ama eta Karmelo ikastetxeetako sei eta hamabi urte arteko umek euren ikastetxeetako antzerki tailerretan prestatu dituzten antzeztan eskainiko dituzte, gaur, 19:00etan, Zornotza Aretoan. Haur Antzerki Topaketaren lehenengo edizioa ospatuko dute kulturagunean.

Zazpi taldek hartuko dute emanaldian parte, eta, *Hau lapurketa bat da*, *Barrerik egiten ez zekien printzesa*, *Museolandia*, *Hegazkin zoroa*, *Euskogiltzak*, *Guztiok bat* eta *Inmi-Tan-Gram* izenburuko obrak eskainiko dituzte. Hamar eta hamabost minutu arteko iraupeneko obrak dira, eta euro bateko sarrera sinbolikoa izango du emanaldiak.

Zornotza Aretoan bertan egin zuten martitzenean Andoni Agirrebeitia zinegotziak eta Joserra Martinez Markeliñeko kideak topaketaren aurkezpena. “Orain arte, ikasturtean egindako antzerki lanak bakoitzak bere ikastetxean erakutsi izan ditu”, azaldu zuen Agirrebeitiak aurkezpenean. “Umek zein euren irakasleek ikasturte osoan

egiten duten lana eskertzeko modua da Zornotza Aretoan herri osoari euren lana erakusteko aukera eskaintzea”. Aurtengo lehenengo edizioaren ostean, “lehenengo pausoaren ondoren, Haur Antzerkiaren Topaketa hurrengo urteetan jarraipena daukan ekimena izatea” espero du Agirrebeitiak, eta “gastua ez, Zornotzako Udalak honelako ekimenekin kulturaren egiten duena inbertsioa” dela azpimarratu zuen.

Herriko lau ikastetxetako zazpi taldek erakutsiko dute ikasturtean antzerki tailerretan egindako lana

Kultura eta euskara zerbitzurako Ametx herri erakundeak proposatuta, Markeliñe antzerki taldekoak jardun dira ekimena koordinatzen. Arte eszenikoak hezkuntza baliabide garrantzitsuak direla azpimarratu zuen Markeliñe antzerki taldeko Joserra Martinezek aurkezpenean: “Pertsonen garapenari laguntzen dio antzerkiak: komunikazio ahalmena lantzeko balio du, eta tolerantziaren eta giza harremanen aldeko jarrerak sustatzen ditu”.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA
Bertsolaria



Edozein herriko...
jaixetan? jaijjetan?
jaidxetan?

Orain aste bi kontzertu berezi bat izan genuen Andikoako baselizan: Zuberoako Amaren Alabak. Lau emakume haien ahots biluziek, orkestra oso batek besteko indarra edo handiagoa zuten. Gozo, alai, ausart, triste... Sentimenduz kantatzen zuten, eta doinu bakoitzarekin liluratu gintuzten entzuleok. Aldiz, kantu batetik bestera isiltzen zirenean, indarra galtzen zuen sorginkeriak; zuberotar itxian berbetan zuten, apenas ulertzen baitzitzaizen ezer. Entzule gehienok berriztarrak ginen, asko auzoko edadetuak. Andikoako andreak harridura aurpegia-ekin ikusten nituen: batzuek pentsatuko zuten kantariak ez zirela euskaraz ari, beste batzuek eurak zirela euskaraz ez zekitenak... Ez dakit okerragoa zer den, baina edozelan ere, zerbaitek huts egin zuen. Zerbaitetan huts egiten dugu.

Askoren begiatan euskara batuak artifiziala izaten jarraitzen du oraindik, eta geure jatorriasuna defendatu beharrraren defendatu beharraz, tranpan erortzen gara: txokkerian. Uda sasoiaren atarian gauden honetan, esaterako, laster hasiko dira bateko eta besteko egitarauak agertzen. Ez daukagu argi ordea edozein herriko *jaixetan*, *jaijjetan* edo *jaidxetan* izango garen zoriotsu, eta nahaste galantak ikusten dira hor zehar. Gure herriak zatituta aurrera nekez egingo duela argi dugun bezala, zergatik kostatzen zaigu hainbeste, hizkuntzarekin bakoitzak gura duguna eginez gero, zulora goazela ulertzea? Erresistentzia ez da banatzea, baizik elkartzea.

Platerueneko lagunarteko elektronika: Friends saioa

Ekainaren 20an hasiko dute Friends ekimena



Ruben Kostas DJ durangarraren ekimenez ipini da martxan proiektua.

> MUSIKA I.E.

Ruben Costas DJ durangarraren ekimenez jaio den Friends musika elektronikoaren jaialdiaren lehenengo hitzordua izango dute datorren barikuan, Durangoko Plateruenean. Izen artistiko berriagaz dator DJ durangarra, mundu horretan hasi zela hamar urte bete direnean: Ruben Kostas izen artistikoa-gaz. Lagunak gonbidatu ditu Kostasek beragaz aritzera: Josu Aranburu bergararra eta Ibailo donostiarra ariko dira beragaz, ekainaren 20an.

Josuk zabalduko du gaua, bere kanta zerrendagaz giroa berotuta. Ondoren ariko da Ruben Kostas, bere doinu alai eta dantzagarriagoekin, eta Ibailok itxiko du gaua, musika ilun eta undergroundagoaz. Lagun gehiago ere gonbidatu dituzte Friends

ekimenaren lehenengo saiora: aurkezpena egiten eta kantuan ariko dira, besteak beste.

Kostasen berbetan, azken urteotan Plateruenean antolatutako Gau Elektronikoak baino “proiektu umilagoa, apalagoa” da Friends; helburu nagusizat lagunekin musika gozatzea duena: “esentziara” bueltatzea. Musika elektronikoaren barruko joera “serioagoetara eta flow geldoagoa duenetara” joko dutela azaldu du Kostasek, “publiko helduago baten bila. Gau Elektronikoan nazioartean ezagunak diren artistak ekarri bazituzten, gertukoagoekin jardungo dira orain, eta maiztasun gutxiagotzat antolatuko dituzte saioak: “Lehenengo dinamikagaz barik, lasaitasun handiagotzat ariko gara, urte osoan bi jaialdi antolatuta, esaterako”.

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALEA

ekainaren 27tik aurrera
UDA KALEAN BIZI

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIKURIA

688 861 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

komunikatze 21 bidea, 5. era. 48209 Durango - BIZKAIA

Hemen agertu gura badozu
deitu!

946 217 902

Joseba Arriaga | Amorebieta futbol taldeko jokalaria | Ermua, 1982

“Garrantzitsuena maite zaituzten talde batean egotea da”

Amorebietak hurrengo denboraldirako fitxatu du Joseba Arriaga, Athleticen ezagun egin zen ermuarra



> FUTBOLA Markel Onaindia Athleticekin jokatzearren eza-guna egin zen Joseba Arriaga ermuarra. 2002an egin zuen debuta, eta Julen Guerrero ordezkatu zuen partidu horretan. Jupp Heynckesen aginduetara eman zituen lehenengo pausoak, eta 2005era arte izan zen zuri-gorri. Ordutik hona makina bat talde ezagutu ditu: Eibar, Las Palmas, Jaén, Alavés, Barakaldo... Eta datoren denboraldian Amorebieta taldearen elastikoa eroango du soinean. Lanean hasteko gogotsu dago, eta golak eginda lagundu gura dio taldeari. Urri-txe futbol zelaian, bere etxe berrian erantzun ditu galderak.

Zelako sentsazioak daukazu fitxaketaren harira?
Sentsazio oso onak dauzkat. Barakaldon ere sasoi on bat egitetik nentorren, baina hurrengo denboraldirako ni kontuan ez hartzea erabaki zuten. Segituan

Amorebietatik deitu, proiektu on bat aurkeztu, eta bi urterako konfiantza eman zidaten. Ilusio handiz nago, eta lanean hasteko gogoagaz. Goiz fitxatu dut, eta horrek uda lasaia ekarriko dit. Denboraldira ondo heltzea izango da nire eginbehar bakarra.

Zer helburu daukazu?
Batez ere taldean jarraikortasuna eduki gura dut, eta taldea ahalik eta gorenaren egotea. Argi dago denok egingo dugula borroka, eta Sestaok aurten egin duena apur bat berdintzea gurako dute talde guztiek. Baina, pausoz pauso joan behar da, eta zelako taldea osatzen den ikusi.

Zer ekarpen egin diezaiokezu taldeari?
Arriskua sortzeko fitxatu naute, golak egiteko eta gol aukerak sortzeko. Hori da egin gura dudana, eta urte guztietan egin dudana ere bai. Amorebietagaz ildo horretan jarraitu nahi dut.

“*Amorebieta gauzak ondo egiten dabil, eta beste pausotxo bat eman behar da*”

“*Jarraikortasun handiagoa eduki, eta gol kantitatea gainditzea espero dut*”

Zelan ikusten duzu taldea?

Nik uste talde sendo bat egin gura dela, eta lortzen dabilela. Amorebieta gauzak ondo egiten dabil, eta beste pausotxo bat eman behar da. Taldeak igoerako playoffa jokatu dauka, eta iaz Errege Kopan sartzeko zorian egon zen; ea aurten hori lortzen dugun. Oraindik hilabete bi falta dira denboraldia hasteko, asko falta da, eta seguru jokalaria onak helduko direla. Nik nahi-ko argi daukat: Bizkaiko talde guztien ispilua Sestao da. Lan egin, etxean indartsu izan, eta talde solidoa osatu. Ea denboraldia ondo hasten dugun, goian hastea garrantzitsua izango da eta. Hobetzen joatea da inportanteena.

Zelako denboraldia osatu duzu Barakaldon?

Aurten bizpahiru lesio eduki ditut, apur bat traba egin didatenak. Baina jokatzeko moduan egon izan naizenean, ia partidu

guztiak jokatu ditut. Hamar gol egitea lortu dut, eta kantitate nahiko ona da jokatu ditudan partiduetarako. Aurten jarraikortasun handiagoa eduki, eta iaz lortutako gol kopurua gainditzea espero dut. Seguru nago partidu gehiago jokatzen baditut, gol gehiago egingo ditudala.

Zelan gogoratzen duzu Athletic egaz hasi zinenekoa?

Duela asko izan zen honezkero. Ni harrobitik nentorren, zortzi-bederatzi urtez jokatu nuen harrobian. Jauzia emateko aukera eduki nuen, eta lehenengo urtean Heynckesegaz jarraikortasun handia eduki nuen. Gero, [Ernesto] Valverdegaz gehiago kosta zitzaidan, eta hor apur bat moztuta geratu nintzen. Baina, beno, nire ibilbidea egin dut, eta pozik nago. Talde askotan egon naiz, eta guztietan ondo egon naiz. Mutil familiazalea naiz, eta nire familia alde guztietara eroan dut. Ez naiz bakarrik joan, eta hori laguntza handia da.

Ibiltaria izan zara...

Argi dago denok ez daukagula Andoni Iraola lez Athleticen hamabost urtez egoteko zorrea, kalitatea edo behar dena. Iraola nire kintakoa zen, eta Gurpegigaz batera hori lortu duen bakarra da kasik. Baina pozik nago. Lehenengo Mailan, Bigarrenean eta Bigarren B Mailan egon naiz. Mailak garrantzia dauka, baina garrantzitsuena maite zaituzten talde batean egotea da.

Zein da zure ibilbideko akordurik onena?

Athleticegaz debutatzea da garrantzitsuena bizkaitar ororentzat. Gainera, Jaenen urte onak eduki nituen. Las Palmasetik nentorren, eta urte biak onak izan ziren. Bigarren Mailara igotzeko borrokan egon ginen azken minutura arte, eta pena bat izan zen lortu ez izana. Zaleekin lotura oso ona zegoen; partiduko 18.000 lagun batzen ziren.

Hedabidetan beti izarrak agertzen dira...

Beti lauzpabost jokalariren inguruan egiten da berba, eta maila guztietan gertatzen da hori. Bizkaian, Bigarren B Mailan jokalaria gazte ugari dago, eta badaukate aukera. Sasoi hauetan, gauzak ondo egiten dituen talde bat etxean edukitzea inportantea da. Lehenago beti begiratzen zenuen kanpora, baina orain aprobeztatzeko momentu batean gaude. Gazte horiek indartsu datoz.

Rabobankek eta Marianne Vosek goitik behera agindu dute Birako lehen etapan

Rabobank taldeko hiru txirrindulari bakarrrik heldu ziren Iurretako helmugara; Vos hirugarren sailkatu zen, eta bere aurkariei lehenengo kolpea eman die



Pauline Ferrand etapa irabazlea podiumean.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Iurretan hasi eta amaitu zen atzo Emakumeen Birako lehen etapa. Rabobank taldeak eta Marianne Vos taldeko liderrak goitik behera agindu zuten lasterketa osoan. Helmugara bakarrik heldu ziren Rabobankek hiru txirrindulari, eta Pauline Ferrandentzat izan zen garaipena; Anna Var der Breggen sailkatu zen bigarren, eta Marianne Vos munduko txapeladuna hirugarren. Vosek besoak goratu zituen helmugara sartzean. Bazekien Emakumeen Bira irabazteko pauso garrantzitsua eman zuela estreinako etapan.

Zumeltz gainean jo zuen Var der Breggenek lehenengo era-

soa, eta Vos eta Ferrand beragaz joan ziren. Emma Johansson, aldiz, atzean geratu zen. Ihesaldiak ez zuen asko iraun, baina, Urkiolara heltzeko kilometro baten faltan, Rabobankek hiru berritortu zuten ihes egitea, eta helmugaraino heldu ziren. Dorleta Eskamendi izan zen lehenengo euskalduna.

Gaur, Oñatin hasi eta amaituko da 113 kilometroko etapa. Azken txanpan Udana eta Atagoiti Gane igoko dituzte, baina ez dira mendate lar gogorak. Bihar Arrietatik Mungiarainoko bidea egingo dute. 93 kilometroko etapa gorabeheratsua izango da. Etzi, berriz, Ataunen amaituko da Bira. Urkillaga eta Abaltziz-

keta mendateak igoko dituzte. Ez dira mendate luzeak, baina bai gogorak.

Lehia estua klasikoan

Martitzenean Durango-Durango klasikoan parte hartu zuten orain Biran dabilzan taldeek. Lehen zatian, Bizkaia-Durango taldeko Anna Ramirez katalana ihes eginda ibili zen kilometro askoan. Ondoren, Muniketa jaisten, Marianne Vosek, Elizabeth Armitsteadek eta Emma Johanssonek ihes egin zuten. Esprintean Vos izan zen azkarrena. CAF Transport Engineering taldeko txirrindulari guztiek amaitu zuten lasterketa, eta hori zuten helburu.

Errugbi Eguna ospatuko dute bihar, Elorrioren

> ERRUGBIA J.D.

Elorrio Rugby Taldeak antolatuta, Errugbi Egunaren zazpigarren aldia ospatuko dute bihar, Elorrioren. Goizean, 11:30etik aurrera, gaztetxoek errugbi tag modalitatean –kontakturik gabeko– aritzeko aukera eskainiko diete errugbi zelaian; iaz 70 ume inguruk parte hartu zuten. 15:00etan nagusien txanda izango da, modalitate berean. Eguna errematatzeko, 21:00etatik aurrera herri afaria egingo dute pilotalekuan. Aurreko aldietan 250 lagun inguru batu izan dira.

Urruzola eta Altuna onenak pilota finalean

> PILOTA J.D.

Mallabiko Biharko Izarrak Pilota Txapelketa Jokin Altunak eta Xabier Urruzolak irabazi dute. Partidu gogor eta ikusgarrian 22-17 menderatu zituzten Xabier Santxo eta Aitor Irusta. Atzelari biak maila handian ibili ziren, baina Altuna izan zen partiduko izarra, etorkizun oparoa izan dezakeela erakutsi zuen eta berari eman zioten pilotaririk onenaren saria. Irabazle biek Aspe pilota enpresagaz debutatuko dute laster. Lau terdiko finalean Joanes Bakaikoak uste baino errazago menderatu zuen Eneko Labaka: 22-11.

ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbola

Etxea teilatutik hasita

Sasikoak eta Elorriokok denboraldi distiratsua osatu dute Hirugarren Mailan; baita Presion Break taldeak ere, Maila Goreneko txapeladun izan delako. Bestelako kontuak gertatu dira Mallabian; proiektu berri bati ilusio handiz ekin zitzaion, baina azkarregi eta presaka egin zen, plangintza nahikorik gabe.

1.200 biztanle dituen herri txiki bateko talde apal batentzat anbizio larregikoa izan da. Azpiegitura egoki barik, jokalaririk gutxi-ekin eta baliabide ekonomiko urriekin proiektua denboraldi erdira heldu aurretik hasi zen hondoratzen, nahiz eta azken arte ontzitari eutsi dion entrenatzaile on baten profesionaltasuna izan duen.

Mallabia zazpi urteko lanaren ostean heldu zen Hirugarren Mailara, jokatzeko gozatzeko beste ambizioz gabe. Gazte mailako taldea sortu zen, zeinak proiektu berri bateko oinarria behar zuen. Baina taldea oinarritik beharrean teilatutik eraikitzen hasita akatsa izan zen. Aurrerantzean hiru talderekin lehia-tuko dugu: Euskal Ligan, Lehen Erregionalean eta gazte mailan. 20-21 urteko gazteek izango dute taldea asentatzeko ardura. Aurtengo denboraldiak defizit handia eragin du, eta taldeko ekonomia ere ondu beharra dago. Ilusioz eta lana eginda, seguru nago talde berriak iaz arte genuen familia giro hori berreskuratuko duela.



Emakume Pilotari Eguna bihar, Mallabian

> PILOTA J.D.

Bihar Emakume Pilotari Eguna ospatuko dute Mallabiko pilotalekuan. Ekitaldia 17:30ean hasiko da. Lehenengo, eskola kiroleko zein pilota klubetako emakumezko pilotari guztiak batuko dira, eta hainbat argazki aterako dituzte: denak batera,

jokamoldez jokamolde... Ondoren, esku pilotan zein paleta goma partiduak jokatu dituzte.

Rosa Arregi gogoratuz

XX. mendean emakume erraketisten gorakada eman zen, eta mundu osoan zehar jokatu zuten zalez betetako pilotalekutan. Horietakoa bat Rosa Arregi mallabitarra izan zen. Bihar, 21:00etan, Rosa Arregi gogoratzeke ekitaldia egingo dute Mallabian. Bere ahizpak jasoko du oroigarria.

Ibai Zabalak buruz buruko finala jokatu du domekan


Beñat Rezustaren aurka jokatu du Beotibarren

Ibai Zabala berriztarrak Buruz Buruko Promozio Txapelketa finala jokatu du domekan, 17:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Profesional denetik buruz buruko lehen finala izango du. Beñat Rezusta bergararra izango du aurrez aurre, 21 urteko atzelari jotzailea.

Orain arte egindakoagaz “oso pozik” dagoela adierazi du Zabalak, “baina, behin finalera helduta, denoi gustatzen zaigu irabaztea”. Finalean “ibiltzea” egokituko zaiola uste du, Rezustak beso indartsu bi dituelako. Aireko defentsan sendo eta seguru ibiltzea izan daiteke

partiduko gakoetako bat. Aukera duenetan min egiten saiatu beharko du, saketik bertatik hasita.

Finalerdietan Victor Estebani uste baino errazago irabazita (22-9) heldu da finalera. Berriztarrak bederatzi sake sartu zizkion errioxarrari, eta hori zama astunegia izan zen Estebanentzat. Jokoa eta pilotean ere gehiago izan zen Zabala, eta maila handiko partidua osatu zuen: “Dena ondo irten zitzaidan”, gogoratu du Berrizko atzelariak.



Harrison

HOTEL - RESTAURANTE

Izan ezazu eztegu eskusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak, bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere beraiek baitaukate.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo, besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako afaria eta gaua zozkatuko ditugu

Zein pilotari berriztar izango da Buruz Buruko Promozio Txapelketako finalean?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: Igor Orbea. Zorionak!

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 14an, 23:00etan,
Zaldibarko gaztetxean

Niña Coyote eta Chico Tornado

Bartzelonako Primavera Sound jaialdian jo ostean, eta 21ean Azkena Rocken aritzera abiatu orduko ariko dira Niña Coyote eta Chico Tornado Zaldibarko gaztetxean. Surfin Caos taldean aritutako Koldo Soretok, eta Zuloakeko eta Las Culebraseko taldekide izandako Ursula Strongek osatzen dute bikotea.

Antzerkia

:: DURANGO

Ekainaren 15ean, 18:00etan, **Talentuak plazara: 'Olatz Ille Latz'**, Plateruenean.

:: ELORRIO

Ekainaren 13an, 20:00etan, **Inungane, sustraia airean**, Arriolan.

:: IURRETA

Ekainaren 20an, 18:00etan, **Zirika Zirkus 'Txalestrup'**, Amilburu plazan. **20:30ean, Salitre 'Rico rico'**, Dantzari plazan.

Erakusketa

:: DURANGO

Ekainaren 10etik 29ra, **Segun Lazkanoren 'Ero' laneko argazkiak**, Plateruenean. BegiraPhoto.

Ekainaren 29ra arte, **Rous Boisier-en 'Pérdida' eta Goiuri Aldekoa-Otaloraren 'Bosnian Déjà Vu'**, Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

Ekainaren 29ra arte, **Godzillaren 'Cabanga' laneko argazkiak**, Merkatu plazan. Begira Photo.

:: ZALDIBAR

Uztailaren 12ra arte, **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra**, udaletxean.

Musika

:: DURANGO

Ekainaren 12an, 19:00etan, **Soinua musika ikastegiko ikasleen kontzertua**, Plateruenean.

Ekainaren 20an, 22:30ean, **Friends eta musika elektronikoa**, Plateruenean.

:: ZALDIBAR

Ekainaren 13an, 23:00etan, **II. Gari Rock Fest: Dead Bronco**, gaztetxean.

Ekainaren 14an, 23:00etan, **II. Gari Rock Fest: Niña Coyote eta Chico Tornado + Porco Bravo**, gaztetxean.

:: ZORNOTZA

Ekainaren 13an, 19:00etan, **'Musikaren barrenean' jaialdia: XX. mendeko askotariko musika**, Zelaietako auditoriumean.

Ekainaren 14an, 18:30ean, **Pop rock kontzertua**, Zubiondo plazan.

Ekainaren 16an, 19:00etan, **+ Que cuerda & Santiretu (Hiru Trukuri tributua)**, Zelaietako auditoriumean.

Ekainaren 18an, 18:00etan, **Musikoterapia hezigarriko ikasleen kontzertua**, Zelaietako auditoriumean.

Ekainaren 19an, 18:00etan, **Zubiaur Musika Eskolako ikasle txikien erakustaldia**, Amorebieta IV. pilotalekuan.

Euskal Astea

:: DURANGO

Ekainaren 13an, 20:30ean, **Kantoria eta San Juan Bautista abesbatzak, eta Gerardo Rifón organista**, Andra Mariko basilikan.

Ekainaren 14an, 16:30ean, **V. Memorial Peter esku pilota jaialdiko finala**, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. **18:30ean, kalejira udaletxeko plazatik. 19:00etan, dantza agerraldia**, Ezkurdi plazan.

Bertsoak

:: DURANGO

Ekainaren 13an, 22:30ean, **Durangaldeko II. Koplak Txapelketa**, Plateruenean.

Dantza

:: BERRIZ

Ekainaren 14an, 20:00etan, **'Elements' ekialdeko dantza**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Ekainaren 14an, 13:00etan, **AIKO bazkaria eta erromeria**, Plateruena Kafe Antzokian.

:: ZORNOTZA

Ekainaren 17an, 19:00etan, **sormenezko dantza klasikoa, hip-hop eta funkya**, Zornotza Aretoan.

Jaiak

:: BERRIZ (Legaño)

Ekainaren 14an, 20:00etan, **igel txapelketa. 22:30ean, erromeria**.

Ekainaren 15ean, 12:00etan, **Iremiñe, San Lorentzo eta San Asensio taldearen dantza emanaldia. 13:00etan, kulturarteko topaketa. 14:00etan, IV. Jose Ramon Korpion Memoriala. 18:00etan, 'Su txikitán' kale ikuskizuna**.

Bideoforuma

:: DURANGO

Ekainaren 18an, 18:30ean, **'Cándida'**, Ibarretxe kultur etxean.

Berbaldia

:: DURANGO

Ekainaren 18an, 19:00etan, **Jesus Micoren 'Argazkia, gorputza eta bizipenak'**, Arte eta Historia Museoan. Begira Photo jaialdia.



:: DURANGO | ZUGAZA

Al filo del mañana

Zuzendaria: Doug Liman

- barikua 13: 22:00
- zapatua 14: 22:30
- domeka 15: 21:30
- astelehena 16: 21:00

No hay dos sin tres

Zuzendaria: Nick Cassavetes

- barikua 13: 19:30
- zapatua 14: 19:30
- domeka 15: 19:00
- astelehena 16: 18:30
- asteartea 17: 20:00

Pancho

Zuzendaria: Morgan Neville

- zapatua 14: 17:00
- domeka 15: 16:45

2. ARETOA No hay dos sin tres

- barikua 13: 22:00
- zapatua 14: 17:00/22:30
- domeka 15: 16:45/21:30
- astelehena 16: 21:00

Las dos caras de Enero

- barikua 13: 19:30
- zapatua 14: 19:30
- domeka 15: 19:00
- astelehena 16: 18:30

:: ZORNOTZA

X men días de futuro pasado

Zuzendaria: Bryan Singer

- zapatua 14: 19:30/22:30
- domeka 15: 20:00
- astelehena 16: 20:15

Ekainaren 14an, Durangoko Plateruenean

Aiko erromeria

'Dantzaldi ibiltaria' ikastaroari amaiera emateko antolatu du Aiko taldeak biharko Platerueneko Dantzazale Eguna. 13:00etan, Durangoko Andra Mariko elizpean eskainiko duten sokadantzazagaz abiatuko dute eguna, eta kalejira egingo dute, ondoren, Platerueneraino. Bazkaritara bilduko dira kafe antzokian, eta erromeria eta goatekego gozatzeko aukera eskainiko dute, 22:00ak arte. Dantza tradizionala zabaltzeko irakaskuntza metodo propioa du Aikok, eta 'Dantzaldi ibiltaria' ekimenaren seigarren ikasturtea izan da aurtengoa, Plateruenean; ikasturte amaierako jaia da bihar egun osoan ospatuko dutena.



> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
 eguazteneko 14:00ak arteko epea



> **Iker Iturriagak** 6 urte bete ditu. Mosu potolo bat etxeko guztien partez, zorionak!



> Zorionak **Enara, Uxue**, aita, ama eta etxeko guztien partez.



> Zorionak **Xabier**. Oso pozik gaude zaren modukoa zarelako eta asko maite zaitugu. Eider, ama eta aita.



> Ekainaren 12an **Maddik** 3 urte bete ditu. Zorionak sorgintxo! Ama, aita eta Markoren partez muxu haundi bat!



> **Guillerrok** prestatu ditu dagoeneko barkuaren motorrak anaiagaz. Zorionak denon partez, eta bidaia ona izan!



> Zorionak **Bittor!** Bost urte egin dozuz, eta hementxe doia musu handi bat etxeko guztien partez. Muuuuuuuuu!



> **Izar Ogizak** ekainaren 12an urtetxo bat egingo du. Zorionak, Irati, Aner eta etxeko guztien partez.



> Zorionak **bikote!** Oso ondo pasa biharko eguna, eta oso zorionsu izan bizitzako etapa berri honetan. Kontuz ibili Tailandiatik! Zorionak familia guztiaren partez!



> **Keke eta Marina** bariku honetan ezkonduko diez. Zorionak kuadrilla guztien partez. Ondo pasau zuen ezkontza egunien!



> Ongi etorri **Jakes**. Muxu bat Haizea, aita eta amaren partez.



> Zorixon beruek liburutegixen ikesten izten ez dozkun mutil katxarruantzako! Zakukada bat mosu zure bi poxpolintxoan partez!



> Aste honetan Apatako bi sorgin hauek, **Janirek eta Amaiak**, urteak bete dituzte. Zorioxonak familia guztiaren partez bioi, eta horrela jarraitu!



> Gure mutikoak 9 urte bete zituen ekainaren 11n. Zorionak **Andere** etxekoan partez! Guapo!



> Datorren barikuan, hilaren 20an, **Jonek, Ikerrek, Iparrek eta Hizeik** Abadiño gaztetxean egingo duten txokolatadara etorri nahi duen guztia gonbidatzen dute. Zorionak!



> Giza katearen aurretik eta giza katean bertan parte hartu duzen elorriar guztioi eskerrik asko eta zorionak! Hau ez da amaiera, hasiera baino. Laster izango dugu elkarren berri!



> Durangaldeko jubilatutaldea, ekainaren 8an, Parisen egonda be, erabakitzeo eskubidearen alde, eskutik oratuta. Aupa zuek!

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869

Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

> BOTIKAK

- **BARIKUA, 13** - 09:00-09:00
 - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- **ZAPATUA, 14** - 09:00-09:00
 - **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- 09:00-13:30
 - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
 - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
 - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 - **Irigoién** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 - **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
 - **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
 - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
 - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- **DOMEKA, 15** - 09:00-09:00
 - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- 09:00-22:00
 - **Bengoa** (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- **ASTELEHENA, 16** - 09:00-09:00
 - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- **MARTITZENA, 17** - 09:00-09:00
 - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
 - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- 09:00-22:00
 - **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- **EGUAZTENA, 18** - 09:00-09:00
 - **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
 - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- **EGUENA, 19** - 09:00-09:00
 - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
- Gurutze Gorria **94 681 09 49**
- Osakidetza **94 600 72 00**
- Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

- Euskotren **902 54 32 10**
- Bizkaibus **94 448 40 80**
- Pesa **902 10 12 10**
- Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

- Abadiño **94 681 44 70**
- Matiena **606 459 988**
- Durango Geltokia **94 681 10 01**
- Elorrio Geltokia **94 620 15 65**
- J.L. Uriarte **670 402 002**
- I. Estebez **670 678 273**
- M. Galeano **670 409 330**
- Iurreta **94 620 15 65**
- Taxi auzunea **688 618 690**
- Berrizko auzo taxia **620 022 800**

15° 22° ZAPATUA



13° 19° DOMEKA



12° 20° ASTELEHENA



12° 22° MARTITZENA



> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matierna)
 Eguaztenetan
 10:00etatik aurrera
Durango
 Zapatu goizetan
Zornotza
 Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga.....**0,80 euro**
- Letxuga haritz hostoa**1 euro**
- Azelga**2 euro/kg**
- Espinaka txorta**1,20 txorta**
- Berakatz freskoa**1,50 txorta**
- Ilarrak**6 euro/kg**
- Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
- Arrautzak.....**3,80 euro/dz**
- Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
- Gari integraleko ogia**3,30 euro**



Giza katea Durangaldean



CEPA HHI **CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**
Doako irakaskuntza ofiziala




MATRIKULA

- IRAKASKUNTZA ARAUTUA**
- Atzerritarrentzako gaztelania
 - II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
 - DBHko graduatua

- IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**
- Unibertsitaterako sarbide proba
 - Goiko zikloetarako sarbide proba
 - Informatika
 - Ingelesa (hasiera maila)

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA EPEA ZABALIK EKAINAREN 16tik 30era eta IRAILAREN 1etik 15era

